

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urtarrilaren 30a • IV. urtea

141. zenbakia • DOAN BANATZEKO



IÑAKI ASPIAZU

“Arkitektura berezkoak dituen ezaugarriak galtzen ari da pixkanaka”

European Newspaper AWARD

Goienkaria ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA



Goienka2a 'Iragana gogoratzuz': Debagoieneko lanbide zaharrak, telebistan



EDU MENDIBIL

Saharar herriarekiko elkartasuna

Erantzun ona izan du sahararrendako elikagaiak eta dirua batzeko Debagoienera egin den kanpainak. Beste behin, eskuzabaltasuna eta saharar herriarekiko elkartasuna erakutsi dute debagoiendarrek. Datu batzuk aipatzean, Arrasaten bost tona elikagai batu dituzte; Bergaran, lau tona; eta Antzuolan 602 kilo. Dirutan, Bergaran 3.000 euro eta Antzuolan 1.820. Ibarreko beste herri batzuetan ere egin dute janari eta diru bilketa. Batik bat, azukrea, lekariak, zerealak, pasta, olio eta atun latak batu dituzte Aljeriako basamortuan bizi diren errefuxiatu sahararrei bidaltzeko.

ASTEKO GAIA: SINADURA BILKETA IBARREAN /3

1.600 lagun Elkarrirekin bat egiten

Elkarri mugimenduak sinadura bilketa kanpaina handia deitu zuen joan den urrian. Helburua zen 100.000 sinadura biltzea Bake Konferentzia bultzatzeko, eta erakusteko ekimen horrek gizartearen babes duela. Elkarririk Debagoienera dituen lantaldeak ere mobilizatu dira, eta emaitza poli-

tak lortu dituzte: hain zuzen ere, 1.600 sinadura bildu dituzte ibarrean. Elkarririk gurerako zuen helburuaren erdia da hori.

Orain, otsailaren 28an sinadura bilketa egun berezia deitu du Elkarririk, eta 3.000 boluntario beharko ditu Euskal Herri osoan 1.000 mahai ipintzeko.

Beste bi eguneko zentro irekiko ditu Diputazioak

Mendekotasun arazoak dituzten adinekoei laguntzeko, bi zentro irekiko ditu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak: zentro balioanizduna Elgetan eta eguneko zentroa Eskoriatzan. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Saileko dipu-

tatu Esther Larrañaga eta Jose Luis Madrazo Gizarte Politikarako Departamentuko Ezinduen eta Babes Gabeen Laguntzako zuzendari nagusia Oñatin izan ziren joan zen astean. Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulego berriaren inaugurazio ekitaldian hartu zuten parte. /4

azul
DE RIZOS PELUQUEROS

azul de Rizo's-en
ZU zara garrantzitsua

ZERBITZU BERRIA:
Masajea eta osteopatia
Aitor Laskurain

ORDUTEGIA:
Astelehenerik ostiralera: 09:30etik 19:30era
Zapatuetan: 08:30etik 18:00era

Otalora Lizentziaduna 24 - Tel. 943 79 83 66 - ARRASATE

LEIZE ZE
beherapenak

%50

PRAKAK 20 € • KAMISETAK 6 € • GONAK 20 €

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA Fraiskozuri 5 BERGARA Olarte 5 ARRASATE

DEBAGOIENA

Populazioak behera egin du, beste behin, gure ibarrean

Azkeneko urteetako joerari eutsiz, iaz ere behera egin zuen populazioak Debagoienera. Hain justu ere, 2003. urte hasieran, 68 lagun gutxiago bizi ginen Debagoienera, Aramaio kontuan izan barik. Gipuzkoan, ostera, joera kontrarioa da, hau da, gora egin du populazioak, ia 1.500 bizilagun irabazita. /4

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun Egin zaitez zu ere!



JOSU SARASUA |
IRAKASLEA
ARETXABALETAKO

“GOIENKARIAk funtzio komunikatiboa du ibarrean, iritzi artikulu eta guzti, eta uste dut *Asteleheneko Goienkaria*-k ere bide hori hartuko duela. Euskalkia sarriago erabiltzea nahiko nuke”.



ANA BELASTEGI |
LANGILEA,
BERGARA

“Egubakoitzetan banatzen dena gustura irakurtzen dut, baina akaso asteburuko notiziak azaletik bakarrik lantzen ditu. *Asteleheneko Goienkaria*-k hutsune hori beteko duela uste dut, eta ikusi nahi dut”.



JUAN RAMON GARAI |
ESK SINDIKATUKOAK,
ARRASATE

“Beste komunikabideetan leku txikia ematen digutenendako irekita dago GOIENKARIA: mugimendu sozialendako, herri mugimenduen dako eta herritarrendako. Bide horretan sakondu beharra ikusten dut”.



ANASTASI GABILONDO |
ANDEREÑO OHIA,
ANTZUOLA

“Gabonen atarian kale-ratutako 0 zenbakia irakurri genuen, txukuna iruditu zitzaigun, eta barruan zetorren txartela bete eta harpidedun egin ginen. Aldizkari interesgarria dela uste dut; euskaraz, gainera”.



PATXI GOIKOLEA
BERTSOZALEA,
ARRASATE

“Herriko eta ibarreko albisteak jasotzea garrantzitsua da egunean egoteko, eta GOIENKARIAk hori ondo egiten duela uste dut. Astelehenetakoa ere gogoz irakurriko dut, goitik beheraino”.

Asteleheneko Goienkaria



Telefono deiak

Aurreko astean aipatzen genizuen zela bide onetik zihuan *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun egiteko kampaia. Harpidedun egiteko moduez ere jardun genuen zutabe honetan. Honekin lotuta esan nahi dizuegu Goienan jo eta ke dabilzala lanean telefono deiak egiten. Harpidedun egiteko eskaintza egiten ari dira. Lau lagunek dihardute zeregin horretan: Itsaso Berezibar, Josu Larrañaga, Olatz Uribebeberria eta Naiara Altube. Laukote honen helburua da, *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun egitearen abantailak azaltzeaz gain —kontuan izan behar da merkeagoa dela eta opariak eskura daitezkeela—, GOIENKARIAren gainera eta, oro har, Goienaren gainera iritzia jasotzea. Eta, esan behar da, oso erantzun onak jasotzen ari direla. Batetik, gehienak harpidetu egiten direlako eta, bestetik, oro har inpresio ona daukalako jendeak Goienari buruz. Gainera, guri, GOIENKARIA egiten dugunoi, oso baliagarria zaigu gure irakurle-iritzia, apurka-apurka, hobetzen joateko.

Beste kontu bat: aurrekoan aipatzen genizuen hainbat ekitaldi egiteko asmoa daukagula ondorengo egunotan Goiena egitasmoaren eta *Asteleheneko Goienkaria*-ren berri emateko. Datorren egunean, otsailak 5, Arrasaten —Udaletxeko Pleno Aretoan iluntzeko 19:00etan— eta Oñatin —toki berean, 20:00etan— egingo dira. Ekitaldiotan parte hartuko dute herriko pertsona ezagunek, politikoki, kirolari, kulturagile, Udal ordezkari eta abarrek. Ekitaldiak, edozelan ere, irekiak izango dira joan nahi dutenendako.

Datorren astean Arrasateko eta Oñatiko udaletan aurkeztuko da egitasmoa



ANTON INTZA |
ALOÑA MENDI
ELKARTEKOAK, OÑATI

“Kirol munduan bizi naiz ni, eta oso garrantzitsua iruditzen zait ibar osoko emaitzak eta kirol jardunak jasotzea. Gainera, gero eta garbiago ikusten dut Deba-goiena bera talde bakar gisa hartzea”.



MIKEL LEZAMIZ |
SOZIOLOGOAK,
ARRASATE

“Nik beharrezkoa ikusten dut asteburuetako kirol ekintza eta kultura ekitaldien kronikak jasotzea. Ibarreko gazte askok egiten dute kirola eta kultura ere asko iri interesatzen zaio, eta bete egin behar da hori”.



UNAI INURRATEGI |
PILOTARIA,
ESKORIATZA

“Asteburuetan ere makina bat gauza gertatzen dira, eta horiek jasotzea beharrezkoa dela iruditzen zait. Gainera, ni kirolzalea naiz eta astelehenetan gustura irakurtzen ditut kiroleko berriak”.



AGUSTIN MARKAIDE |
EROSKIKO ZUZENDARI
NAGUSIA, ARRASATE

“Ibarreko berriak ez ezik hemengo pertsonak eta egitasmoak ere jasotzen ditu GOIENKARIAk. Oraingo produktuari hau merkaturatu defendatzeko gai izango garelako uste dut, eta parte hartu nahi dut”.



ASIER ALEGRIA |
DANBOLIN JOTZAILEA,
ESKORIATZA

“GOIENKARIA herriko eta ibarreko notiziak jasotzen dituen bide zuzena eta interesgarria da. Geure kulturaren alde eta euskaraz lan egiten duen proiektua da, eta merezi du harpidedun egitea”.



JOXU ARANA |
IRAKASLEA,
BERGARA

“Oñi arte erdaraz irakurtzen genituen zapatu-domekako kontuak, batez be kirolekutuak eta herrixetako berriak. Oñi, euskaraz be jakin-go ditugu. Asteko agendia be ekarriko dau, eta hori interesgarria da”.



GARBIÑE GARAI |
LANGILEA,
OÑATI

“Aurrerapauso bat da euskal prentsaren normalizazio bidean, eta astelehenetan ere berriak euskaraz irakurri ahal izango ditugu. Harpidetza bidez, gainera, jendea ohitu egingo da lana ordaintzen”.



ALBERTO ALTUBE |
DIETISTA,
LEINTZ GATZAGA

“Produktu honekin asteko notizien jarraitpen bat egingo da. Uste dut gaiak eta edukia ondo bereiztu direla eta asteburuko hutsune hori egoki beteko dela. Hurbileko notiziak garrantzitsuak dira”.



OLAIA ETXENAUSIA |
APAREJADOREA,
ARETXABALETAKO

“Santamasetan kalera-tutako alea ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan. Oso irakurterraza zen eta formatua eta diseinua asko gustatu zitzaizkidan. Zein eduki eta nola landuko diren jakitean, harpidetza egin nuen”.



JABIER EROSTARBE |
DISEINUGILE GRAFIKOA,
OÑATI

“Nik Laixanek bidalitako txartela bete nuen. Oso ondo ikusten dut ibar osora heltzen den egunkari bat kaleratzea, eta ordaindu beharra ez dut gaizki ikusten, besteak ere erosi egin behar izaten ditugu-eta”.

Bake Konferentziak ibarreko 1.600 lagunen babesa jaso du

Elkarrik gurerako zuen helburuaren erdia dagoeneko bete da

LEIRE KORTABARRIA

Elkarri mugimenduak 1.600 bat sinadura jaso ditu orain arte Debagoienean, hirugarren Bake Konferentzia bultzatzeko. Sinadura biltza kanpainaren helburua da antolatu nahi den hirugarren Bake Konferentziarako 100.000 sinadura biltzea; kanpaina martxoaren 28an bukatuko da, eta orain arte, 45.000 sinadura bildu dituzte Euskal Herri osoan.

Horrenbestez, ibarrerako aurreikusita zuen kopuruaren erdira iritsi da dagoeneko Elkarri. Pozik daude, baina "oraindik laguntza asko behar dugu; hortaz, jendea anima dadila sinatzera", dio Gipuzkoako arduradun Aitziber Blancok.

ANTZUOLAN ETA OÑATIN, GEHIEN

Debagoienean bost tailer edo lantalde ditu Elkarrik: Arrasaten, Aretxabaletan, Bergaran, Oñatin eta Antzuolan. Eta Elgetan talde bat sortu nahian dabilta hainbat herritar. Elkarriren sinadura biltza kanpaina martxoan bukatuko da, eta, orain arte, ibarreko taldeek lan polita egin dute. Orain, esfortzu berezia egingo dute: otsailaren 28an, 1.000 mahai ipiniko ditu Elkarrik Euskal Herri osoan, eta 3.000 boluntario behar dira horretarako.

Bi kasu dira deigarriak gurean: Antzuolako eta Oñatiko. 400 eta 550 sinadura jaso ditu Elkarrik herri horietan, hurrenez hurren. Segidan, Arrasate eta



Elkarriren sinadura biltza kanpaina zabalik dago martxora arte. Irudian, Iruñeko agerraldiaren une bat, joan den zapatuan.

Aretxabaletako kasua dator: hor, bi herrietan, 500 sinadura jaso dituzte. Kasu guztietan, sinadurak biltzeko bi modu nagusi egon dira: bata, jendeak etxean jaso duen esku-orriaren bidez; bestea, kalean ipini dituzten mahaietan.

Ibarrean hainbat ekintza antolatu zituzten kanpaina bultzatzeko: adibidez, Arrasaten sinadura biltza ekitaldi handiak deitu zituzten; Antzuolan hitzaldiak, liburu aurkezpenak eta *La pelota vasca* filmaren ema-

naldia antolatu zituzten, eta jendeak harrera ezin hobea egin zuten ekitaldi horiei. Horrez gainera, debagoienarrok bat egin dugu Elkarrik antolatutako ekitaldi handiekin ere: esaterako, Iruñean egin zen nazio agerraldira ibarreko asko joan zen. Jose Ramon Elortza Arrasateko ordezkariaren esanetan, "jendeak bikain erantzuten die ekitaldi horiei, eta errazagoa da sinadurak han biltzea, herriz herriko mahaietan baino".

JAIK APROBETXATU

Ibarreko taldeek kalera ateratzen jarraituko dute kanpaina bukatu bitartean. Arduradunak bat datoz esatean Debagoieneko gazteak erakarri nahi dituztela, batik bat. Baina sinadura guztiak dira beharrezkoak Elkarrirendako. Martxora bitartean, batez ere, jaiak -Aratusteak, kasu-... aprobetxatuko dituzte Elkarrikoek mahaiok kalean ipintzeko, eta Debagoienean ahalik eta sinadura gehien biltzeko.

100.000 sinadura

ZERTAN DATZAN

100.000 sinadura behar ditu Elkarrik Bake Konferentzia bultzatzeko. "Juridikoki ez dira beharrezkoak, baina babes sozialaren adierazle dira", dio Elkarrik.

IZEN EZAGUNAK

Euskal Herriko jende ezagunak ere egin du bat Elkarriekin. Gurean, besteak beste, Nekane San Migel epaileak eta Alberto Iñurrategi mendizaleak.

ZELAN PARTE HARTU

Sinadurok hainbat modutara helaraz diezazkiekeuzue: www.elkarri.org webgunean; 902 42 10 10 telefonoan; edo ordezkariengana jota.

SINADUREN HELBURUA

Sinadurak lortu ondoren, Elkarrik eskatuko die EAEko eta Nafarroako legebiltzarrei elkarriketarako alderdi guztiek osatutako mahai osatzea.

HURRENGO EKINTZAK

Otsailaren 28an, sinadura biltza eguna deitu dute Euskal Herri osoan; boluntario moduan lan egin nahi duen edozein esku zabalik hartuko dute.

JOSE ANGEL IDIGORAS / OÑATIKO TAILERREKO ARDURADUNA

"Etengabeko lanean datza tailerraren arrakasta"

Jose Angel Idigoras da Elkarriren Oñatiko lantaldeko arduraduna. Oñatin Elkarriren sinadura biltzetak arrakasta handia izan du orain arte, eta horretaz egin dugu berba Jose Angelekin.

Oñatin 500 sinaduratik gora jaso ditu Elkarriren ekimenak.

Bai. Guk geuk 500 bat bildu ditugu kalean; gero, Internet eta posta bidez ere bidali du jendeak sinadura. Kalera irteteak izan du arrakasta handien.

Zein da arrakasta horren gako, zure ustez?

Oñatiarrok badugu *kimika* berezi bat. Bestalde, Elkarriren lana aspalditik dator, eta, nahiz

eta kanpaina honek lortu duen oihartzun handien, gure lehengo lana ere ezaguna zen herrian, eta beti jaso du erantzun ona. Herriko taldean lau kide gabilta; aste-oro batzartzen gara, eta tinkotasunez eutsi diogu lanari. Hori da sekretua: etengabeko lana.

Zein ekimen dituzue antolatuta hemendik eta martxora bitartean?

Orain arte bezala, kalera irteten eta mahaiak jartzen jarraituko dugu. Gure asmoa da gazteongana hurbiltzea; hori dela-eta, ETEOn ipiniko dugu mahai bat. Horrez gain, jende mugimendu handia dagoen guneetan egongo gara: saltoki handiak, auzune jakin batzuk...



Jose Angel Idigoras.

Beste herri batzuetan esan dute kalean jendeari kostatu egiten zaiola inplikatzera. Oñatin ez da hala gertatu?

Jendeak ondo erantzuten du kalean hurbilduz gero; hori bai, gelditu egin behar dituzu, euren-gana joan.

Zerk bultzatu zintuen zu Elkarriekin lan egitera?

Euskal Herriko arazoek beti izan naute kezkatuta. Ekimen honen berri izan nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Elkarri hasi zenetik nabil bertan. Eta taldeko beste hiru kideek -Andoni Narbaiza, Ana Mari Zumalde eta Malen Imaz- ere berdin egin dute. Taldeko beste kide batzuek, adibidez, Jonan Fernandez koordi-

natzaileak egindako hitzaldiren baten harira erabaki zuten inplikatzera.

Zertan datza zuen eguneroko jarduna?

Asteroko batzarrak dira garrantzitsuenak. Orain, kanpaina honetan buru-belarri gabilta, baina beti dago lan puntualen bat. Gipuzkoako beste taldeekin ere koordinatu beharra dago, Donostian bilerak egin...

Jendea etorri zaizue parte hartu guran?

Bai, hamaika urte hauetan izan da horrelakorik. Eta ez da etsi behar. Hasieran, batzuk etorri ziren pentsatzen urte pare batean konponduko zela gatazka; gero, alde egin zuten.



Joan zen egubakoitzean inauguratu zuten Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako egoitza.

Bi zentro irekiko ditu ibarrean Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Sailak

Zentro balioanizduna Elgetan egongo da eta eguneko zentroa Eskoriatzan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mendekotasun arazoak dituzten adinekoei laguntzeko, bi zentro irekiko ditu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak: zentro balioanizduna Elgetan eta eguneko zentroa Eskoriatzan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Saileko diputatu Esther Larrañaga eta Jose Luis Madrazo Gizarte Politikarako Departamentuko Ezinduen eta Babes Gabeen Laguntzako zuzendari nagusia Oñatin izan ziren joan zen astean. Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulego berriaren inaugurazio ekitaldian hartu zuten parte.

Diputatuak Oñatira egindako bisita baliatu zuen Debagoiengan sail horrek bultzatuko dituen zenbait proiektuen berri emateko. Besteak beste, iragarri zuen landa eremuko zentro balioanizduna irekiko dutela aurten Elge-

tan; eta Eskoriatzan, berriz, eguneko zentroa.

Esther Larrañagaren esanetan, zentro balioanizdunak "landaren eremuetan gizarte zerbitzuen arloan detektatutako beharrei berariaz erantzuten dieten baliabideak dira". Elgetakoak eguneko zazpi plaza izango ditu eta beste hiru etxebizitza babestuetan. Horrez gainera, zerbitzu kulturalak, aisialdikoak... ere eskainiko ditu zentroak.

Elgetako zentro balioanizduna irekitzea izango da inguru hauetan gutxien errotutako baliabide bat (etxebizitza babestuetak) bultzatzeko lehen urratsa.

Debagoiena da etxeko laguntza zerbitzua gehien zabaldua dagoen Gipuzkoako ibarra

"Baliabide estrategikoa da, egoitzetako okupazioa berrantolatze eta mendekotasun arazorik izan gabe ohiko etxean bizitzeko trabak dituzten adinekoei ordezko bizilekua eskaintzeko", adierazi zuen Esther Larrañagak.

IBARREAN BALIABIDE EGOKIAK

Eskoriatzan irekiko duten eguneko zentroak 15 lagunendako lekua izango du.

Debagoiengan adineko ezinduei laguntzeko baliabideak behar bezala zabaldua daudela azpimarratu zuen Larrañagak. Egoitzetako egonlekuak eta etxeko laguntza aipatu zituen, eta, bere esanetan, "Gipuzkoako eskualdeen artean Arrasate eta inguruak dira azken baliabide hori gehien zabaldua dutenak".

Bukatzeko, diputatuak esan zuen legegaldi honetan ahalegin berezia egingo dutela baliabideak eskualdeetara eramane eta premian dauden gipuzkoarrek gizarte laguntza bizi diren lekutik ahalik eta gertuen jasotzeko.

Debagoiengan, 2002an baino 68 lagun gutxiago bizi ginen iaz

Gipuzkoan, oster, 1.500 lagun gehiago, inmigratioagatik

ENEKO AZKARATE

Azkeneko urteetako joerari utsiz, iaz ere behera egin zuen populazioak Debagoiengan. Hain justu ere, 2003. urte hasieran, 68 lagun gutxiago bizi ginen Debagoiengan, Aramaio kontuan izan barik. Gipuzkoan, oster, joera kontrako da, hau da, gora egin

du populazioak, ia 1.500 bizilagun irabazita. Azpimarragarria da Gipuzkoan biztanleak irabazi dituztenen artean hiriburua eta kostaldeko herriak daudela; Mutriku izan ezik, hark 40 lagun galdu ditu-eta. Beste datu azpimarragarri bat da Gipuzkoak gaur egun 1982an baino 11.000 biztanle gutxiago dituela.

Debagoieneko biztanle errolda, herriz herri

Herria	2003	2002	Aldea
Arrasate	23.085	23.114	-29
Bergara	15.044	15.083	-39
Oñati	10.750	10.780	-30
Aretxabaleta	6.245	6.225	20
Eskoriatza	3.902	3.922	-20
Antzuola	1.911	1.901	10
Elgeta	975	959	16
Leintz Gatzaga	247	243	4
DEBAGOIENA	62.159	62.227	-68
GIPUZKOA	684.416	682.977	1.439



Enpresetako euskara planak aztergai

Enpresetako euskara planen eragileei zuzendutako jardunaldiak egin zituzten eguenean Eskoriatzan, HUHEZIKo fakultatean. Iaz, *Kooperatibak eta euskara* izenburuko jardunaldiak antolatuta zituzten Emun kooperatibak eta Lanke institutuak, eta aurten, bide horretan sakonduz jardun dute enpresetako euskara planen gainean. Besteak beste, aztergai izan zituzten enpresetako euskara planen bilakaera, terminologia, langileen motibazioa euskara planetan, eta euskararen erabilera organoetan. /E.A

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

BATZOKIA ARRASATEN

- Eguneko menuak. Baita zapatuetan ere!
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Brabak
- Olagarroa galiziar erara

Iturriotz 41
Tel.: 943 79 85 72

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Elikagaien Manipulatuzaile Ikastaroa

Zentro baimendua- Erregistro zenbakia: 20546

AKADEMIA

BASTIDA

943 79 35 33
bastida@bastida.es

Jaurlaritzan 0-3 urte bitarteko haur hezkuntza publikoa eskatu dute

Ibarreko lau udaletan hezkuntza sailaren erantzunaren zain daude

I. AGIRREAZALDEGI / N. ZUBIETE

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoria-tza eta Oñatiko alkateek proposamen bat egin diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari: Debagoieneko lau herri horietan, 0-3 urte bitarteko haur hezkuntza sare publikoan ere eskaini ahal izatea.

Ibarreko lau herritako udal ordezkariak hainbat bilera egin dituzte Eusko Jaurlaritzako hezkuntzako arduradunekin. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta

Oñatin 0-3 urte bitarteko haur hezkuntza sare publikoan eskaintzea eskatu dute. Oraindik erantzuna ofiziala ez bada ere, GOIENKARIAK jakin ahal izan duenez,

Gaur egun 0-3 urte bitarteko haur hezkuntza pribatua da ibarreko lau herri hauetan

Hezkuntza Sailak onartu egin du proposamena.

BAILARA OSORA ZABALTZEKO ASMOA
0-3 urte bitarteko haur hezkuntza publikoa bailara osora zabaltzeko proposamena egin zuten Jaurlaritzan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Haurreskolak izeneko partzuergoa sortu du, herrietako eskaintza publikoa errazteko. Baina Arrasateko Udalak, esate baterako, ezezkoa eman dio formula horri. Gaur egun, herrietako eskaintza guztia pribatua da.



Ibarreko hainbat udal eta ikastetxeek eskatu dute 0-3 urte artekoendako haurreskolak.

DEBAGOIENEAN LABUR

Antxon Sasiain preso bergararrak gose greba laga du, Normandiako espetxean

Hogei egunez gose greban eman ondoren, Antxon Sasiain presoak eguaztenean, hilaren 28an, amaitu zuen bere protesta. Parisko Osny espetxetik Normandiako espetxe batera eraman zutenean ekin zion gose grebari. Sasiainen eskubideen aldeko mozioa onartu zuen Bergarako udalbatzarrak astelehenean. Etxerat-ek, besteak beste, zera eskatzen zuen: "Euskal Herriak askatasunera bidean irekitako prozesuan parte hartzeko, euskal presoak Euskal Herrian egotea ezinbestekoa dela aldarrikatzea". EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralar alderdiek alde bozkatu zuten, PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen eta PPkoak aurkako botoa eman zuten.

Gazte informazioko buletin elektronikoa aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak


Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazte Sailak gazte informazioaren gaineko buletin elektronikoa aurkeztu du. Postontzi elektronikokoan gazte informazio eguneratua jaso nahi duenak www.gipuzkoa.net/gazteria helbidera sartu beharko du. Web orri horretan, gazte informazioa hobeto zabaltzeko bide bat sortu dute. Aldizkari elektronikoa jarri dute bertan, albiste eta dokumenturik interesgarrienak biltzeko asmoz. Gainera, harpidetzen direnek gazte informazio buletina astero jasoko dute posta elektronikoz bidez.

Azken egunotan egindako euria dela-eta, Urkuluko urtegia ia goraino bete da

Azken egunotan egin duen euriaren ondorioz, gehiago bete da Urkuluko urtegia. Astelehenean, urtarrilaren 26an, %83,65ean zegoen. Hilaren 19an, %78,13an zegoela kontuan hartuta, azken egun hauetan %5,52 bete dela esan genezake. Hala ere, ibarreko herriak hornitzen dituen urtegia oraindik ez dago guztiz beteta. 10.000.000 litroko edukiera du Urkuluk eta atzoko, urtarrilaren 29ko, kota 331,02koa zen, Ur Partzuergotik emandako datuen arabera.



Deskontuak
artikulu guztietan,
erakusketa berri behar dugulako.
%50eraino!



Kultura

Aste bukaeran Debagoienez gertatu den guzti-guztiaren berri Asteleheneko Goienkarian.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE



902 36 38 51



943 79 22 93



astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

ASTELEHENEKO
Goienkaria

HARPIDETZA TXARTELA

Izendeiturak: _____
Helbidea: _____ Tel.: _____
Herria: _____ Kode postala: _____
Posta elektronikoa: _____
Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan
Beste nonbait* _____
Harpidedunaren kontu korrantea (20 zenbaki):
[]
Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean
*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

ANTZUOLA

Herri Ikastetxeko jolastokia errentan hartzeko aukera egongo da

Aurrerantzean, Herri Ikastetxeko jolastokia errentan hartzeko aukera egongo da. Horixe erabaki berri du Udalak.

Orduko sei euro ordaindu beharko da, eta, horren truke, jolastokiaz gain, argiak, dutxak eta aldagelak erabiltzeko aukera ere egongo da. Euria diharduenean doan erabili ahal izango da kirol gunea.

Egunero, 18:00etatik aurrera hartu ahal izango da errentan jolastokia. Asteburuetan ere emango dute aukera hori. Erreserbak egiteko, udaletxera deitu beharko da. /A.I.

ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkartearen ipuin lehiaketarako epea zabalduta

Txirritola Euskara Elkartek urteroko ipuin lehiaketa abiarazi du. Parte hartu gura duenak otsailaren 18a baino lehen eraman beharko ditu lanak Udal Liburutegira.

Honako baldintza hauek bete beharko dira parte hartzeko: Aramaion bizi izatea edo ikastea, euskaraz idaztea, ipuina argitaratu barikoa izatea eta bi orriko lan bakarra aurkeztea.

Epaimahaiak adinaren arabera sailkatuko ditu ipuinak. Nagusienak DBHko lehenengo ziklokoak izango dira. /U.M.


ELGETA

Aratusteetako dantzen ikastaroa gaur, barikua, hasiko da

Inauteriei euskal kutsua emateko asmoz, Udaleko Hezkuntza eta Kultura batzordeetatik hainbat ekimen bultzatu dituzte. Ekimen horien artean, Inauterietako euskal dantzak herriratzea dago.

Horretarako, dantza ikastaroa egingo dute helduendako. Gaur, barikua, hilak 30, arratsaldeko 19:30ean hasi eta otsailaren 20ra bitarteko bariku guztietan izango dira entseguak kiroldegian.

Miren Atxotegi izango da irakaslea eta Unai Diez laguntzailea. /A.I.



ARRASATE

Garbitzen hasi dira Zerrajerako torloju fabrika zaharra

Hasi dituzte torloju fabrika zaharra garbitzeko lanak. Oraingo astean, Eusko Jaurlaritzako IHOBE elkarte-koak fabrikaren egoera ikuskatzen ibili dira; eta lurren jabeak hala aginduta, Ekonor enpresakoak ingurua garbitzen dabilta egunotan. Jantzi zuri bereziekin dabilta lanean; izan ere, aurreikuspenak bete egin dira eta elementu kutsakorrak agertu dira torloju fabrikari; zianuro hondarrak, besteak beste, galbanizatze erabiltzen zirenak. Horrez gainera, IHOBEko teknikarien esanetan, fabrikari aurkitutako hautsa amiantoa da. Baina datu hori ez dute konfirmatu Zerrajerako ordezkariak. Kontuak kontu, badabilta ingurua garbitzen, eta ziurtatutakoaren arabera, beharrezko segurtasun neurriekin eta herritarrendako inolako arrisku barik. /U.M.

OÑATI

Herriko txistularien historia aztertuko dute domekan, Santa Anan

Makalena elkarteak 25 urte beteko ditu aurten. Hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dute. Etzi, domeka, herriko txistularien historia azalduko dute, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

Emanaldi horretan hamalau txistularik parte hartuko dute, eta euren esperientziak eta hainbat anekdota kontatuko dituzte, besteak beste.

Ondoren, Oñatiko lau pieza joko dituzte; pieza horien ezaugarrien eta egileen gaineko azalpenak ere emango dituzte. Txistularien historian zehar ateratako hainbat argazki ere erakutsiko dituzte, pantaila erraldoi baten.

Herriko txistularien historia ez da nolanhikoa; besteak beste, honako gaiak aztertuko dituzte: herriko lehen *danbolintteruen* historia, Iriarte txistularien familiarena, Agustín Zarketa eta Oñatiko Txistu Akademiarena, Aita Madina eta Musika Eskolarena... /A.I.

KULTURA ASTEA HERRI ESKOLAN

Eguaztenez, Santa Ageda bezpera, hasiko dituzte ekitaldiak. Kopla kantari irtengo dira egun horretan, 18:00etan. Zapatuan, hilak 7, Marsel Magoaren ikuskizuna egongo da Santa Ana aretoan, 18:00etan. Hilaren 10ean, berriz, *Alhambra*ko *giltza* euskarazko filma eskainiko dute. Otsailaren 12an kobazuloen gaineko diaporama emanaldi egongo da, eta hilaren 15ean kobazulo batera irteera egingo dute. Hilaren 14an, azkenik, Hankatxo taldearen *Hitzak patriketan* ikuskizuna egongo da, Santa Ana antzokian. /A.I.

Zertzelada

Hamalau txistularik parte hartuko dute domekako ekitaldian, eta euren esperientziak eta hainbat anekdota kontatuko dituzte.

BERGARA

Labegaraietako kirol eremuan skate pistak egiteko asmoa du Udalak

Astelehenero osoko bilkuran, udalbatzarrak onartu egin zuen Labegaraietako kirol eremuan, tenis pista-aren ondoan, dagoen auditorioa botatzeko lanen baldintza plegua. Eremu horretan skate pistak egiteko lehen urratsa izan da hori. Izan ere, Udalaren asmoa da, behin auditorioa eraitsita, skatearekin ibil-

tzeko *Uformako* pistak egitea hantxe.

Bestalde, Udaleko arduradunek azaldu zuten, datorren astean bertan aurkeztuko du Iñaki Berasategi arkitektoak Labegaraietako kirol eremu berriari dagokion planoak. Pare bat hilabete barru, berriz, proiektu teknikoa ere aurkeztuko du. /A.I.



Auditorioa dagoen tokian egin nahi ditu Udalak skate pistak.

ARETXABALETA

Eskoriatzako lurrak bereizten dituzten mugarriak aldatu egin dituzte

Eskoriatzako eta Aretxabaleako lurrak bereizten dituzten mugarri batzuk aldatzen ibili dira. Bi udalerrien artean 44 mugarri daude, baina guztiak ez dituzte aldatu, egoera txarrean zeudenak eta tamaina egokirik ez zutenak bakarrik. 300 kilo pisatzen duten mugarriak jarri dituzte orain.

Mugarriak aldatzeko erabakia aurreko agintaldiak hartu zuten, eta Ingurumen zinegotziak eta Eskoriatzako basozainak jardun zuten lanean. Orain bete dituzte lanok herri biek lankidetzan. /M.A.

ESKORIATZA

Guraso Eskola, seme-alaben inguruko gaiez hausnartzeko

Seme-alaben inguruko hainbat gaiez eztabaidatu eta hausnartu nahi dutenek zabalik dituzte Guraso Eskolaren atek. Otsailaren 18a baino lehen eman beharko dute izena kultura etxean edo udaletxean. /O.E.

LEINTZ GATZAGA

Gatzagar bi Loramendi Literatura Lehiaketan saridun

Aretxabaleako Loramendi Euskara Elkartek antolatzen duen Loramendi Literatura Lehiaketan 320 ikaslek hartu dute parte. Aurten lehiaketa antolatu duten 15. aldia izan da, eta sarituen artean bi gatzagar izan dira: Ibai Agirreurreta eta Garazi Orobengoa. Ibaik, komiki sailean, hirugarren saria irabazi du. Garazik, berriz, elkarrizketa dotorea grabatu zion Patxi Lasagabaster artzainari. Elkarrizketa grabatu sailean lan onenaren saria irabazi du Garazi Orobengoa. /A.G.

Arkitekto bergarar honek Gas-teizen du egun lantokia. Bere lanak jaioterrian ez ezik beste hainbat txokotan ere ikus daitezke. Iñaki Aspiazuren proiektuetan oinarrituz egindakoak dira Baigorri upelategiko eraikina eta baita Muga upategiko dorrea ere. Arkitekturaren eta enologiaren arteko lotura izan dugu hizpide, besteak beste, baita bere lanik esanguratsuenak ere.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eraikin baten proiektuarekin hasten zarenean, edertasunak eta erabilgarria izateak lan horretan bat egin behar dutela pentsatzen duzu?

Proiektu arkitektoniko gehienak, oro har, funtzionaltasunari erantzuten saiatzen dira. Edertasunaren ideia, eraikinaren barruarekin inolako zerikusirik ez duten forma aldaezinen irudi bezala, ez da batere erakargarria.

Gure lanetan oinarritzko elementua lekua bera da. Eraikinaren kokapena hartzen dugu kontuan, inguruko gainontzeko eraikinekiko harreman egokia bilatuz.

Arkitekturari dagokionez, badago estilo euskaldunik?

Bada herri arkitektura euskalduna, non baserria den eraikinik esanguratsua edo adierazgarriena. Horri buruz Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen liburu interesgarri bat, *Euskal Herriko base-rien arkitektura* izenburupean.

Erregio mailako estiloei dagokienez, berriz, uste dut ezaugarri horiek zerikusi handiagoa dutela folkloreakin arkitektura berarekin baino.

Etxebizitzaren prezioek gora egiten dute etengabe. Arkitektoek badute zeresanik salneurrien garestitzean?

Etxebizitzaren prezioek gora egiteko arrazoiak hiri lurren falta eta lur horien prezio altuek etxebizitzaren kostuaren igoeran duten eragina. Beraz, guk apenas dugu zeresanik gai horretan.

Hiriburu gehienek dute arkitekturari dagokionez eraikin esanguratsuren bat (Kursaal, Guggenheim, Baluarte, Artium, eta abar). Debagoienak badu horrelako eraikin berezi baten beharrik?

Ez dugu eraikin esanguratsurik behar, baldin eta hauek ez badute erakargarritasun kulturalik izango edo ez badute bilera-gune funtzioa beteko. Debagoienean behar ditugun eraikinak ez dira hutsak, edukia dutenak baizik. Erabilera zehatza eman behar zaio eraikinei.

Nolakoak izango dira etorkizuneko Debagoieneko herriak arkitekturari dagokionez?

Lotarako herri ez bihurtzea espero dut. Hau da, herrietako erdiguneak hutsik geratzea, herriko eguneroko bizitarik gabe, hain zuzen ere. Horren kaltetan bizitza hori merkataritza etxe berrietara bideratuta egotea. Baina arkitektonikoki ez dakit nolakoak izango diren.

Arkitektura eta eraikuntzaren etorkizuna domotikaren eta etxebizitza inteligenteen bidetik omen doa. Zertan eragingo dio arkitekturari?

Apenas izango du eraginik. Domotikak etxebizitzako instalazioak arrazionalizatzea baino ez du eskatzen.



GOIENKARIA

Iñaki Aspiazu

ARKITEKTOA

“Arkitektura berezko ezaugarriak galtzen ari da homogeneotasunerako bidean”

ERAIKIN ESANGURATSUAK

“Debagoienak ez du behar hiriburuetakoak bezalako eraikin esanguratsurik, erakargarritasun kulturalik ez badute; eraikin beteak behar ditugu, ez hutsak”

UPATEGIETAKO ARKITEKTURA

“Zein arkitekto aukeratzeko den oso eragingarria izan daiteke produktua edo upategia bera merkaturatzeko, baita markaren irudirako ere”

Arkitektura amerikarraren eragina gero eta handiagoa den honetan, desagertu egingo da bertakoa?

Arkitektura, bertakoa zein beste edozein lekutakoa, pertsonak bezala, hedabide globalizatzaileen eraginez berezkoak dituen ezaugarriak galtzen ari da pixkanaka. Hori dela eta, tamalgarria bada ere, homogeneotasunerako eta berdintasunerako bidean goaz, bai gu eta baita arkitektura bera ere.

Hiriburueta ez ezik landa lurretara ere iritsi dira eraikin arkitektoniko esanguratsuak. Zuk zeuk, esaterako, hainbat upeldegirendako lan arkitektonikoak egin dituzu, ezta?

Upeldegiek badute berezitasunik arkitektura industrialaren barruan.

Ardogintzarekin izan nuen lehen harremana Muga dorrea egin nuenekoa da. Markako irudia nabarmentzea eta Muga upategiak enpresaren erreferentzia komer-

tziala indartzea da eraikin horren helburua. Dorrea, elementu aske eta berezi gisa, egoitza berriaren komunikazio-gune bihurtu da, eta sarrera begiratoki batera daraman igogailu baten bidez egiten da. Bidegurutzean eta hainbat upategi elkar-tzen dituen Haroko auzo batean egonik, oso esanguratsua da. Dorre eta bulego horiek egiteko zailtasunak izan genituen. Izan ere, oinarrian, lur azpian zegoen upeldegia bera, eta haren gainean eraiki behar izan genuen Muga dorrea.

Baigorri upategia Samaniegon dago, Arabako Errioxan. Bertan, sustatzailearen eta arkitektoaren artean egitasmoa luzaroan ikertu eta landu ondoren, langintza sistema guztiak zalantzan jarri ziren, eta grabitatea lagun gisa hartu zen, antzinako upategiak erreferentzia gisa hartuz. Bonben, toberen eta makinariaren erabilera saihestu zen, mahatsa kalte baitzezaketen. Arkitektura oso txukun barmenatzen da paisaian, upategia nabarmendu egiten da eta dagoen topografiari egokitzen zaio. Bere programa garatzen du lur azpian, ezarritako dagoen inguruenari errespetu osoz atxikiz.

Formak funtzionaltasunari jarraitzen dio, arkitekturak enologiari, alegia. Ez da arkitektura mediatikoa, non kanpokoak edukia baino garrantzi handiagoa duen.

Beste hainbat arkitekto ezagunek ere egin dituzte upeldegirendako proiektuak. Zer dela eta moda hau?

Zenbait kasutan zein arkitekto aukeratzeko den oso eragingarria izan daiteke produktua edo upategia bera merkaturatzeko eta baita markaren irudian ere.

Nola egin dezakete bat arkitekturak eta enologiak?

Arkitektura ardogintzaren prozesura moldatzen da.

Zenbaterik aurkitzen du lana Humanitateak-Enpresa amaitu eta gero?

Orain arte bi promozio atera dira hemendik. Lehenengo promozioaren artean, %70ek berehala aurkitu zuten lana eta horien artean, %60k etxetik gertu. Edozelan ere, gure karrera berria da eta gizartean, enpresetan, erroto egin behar da. Enpresek praktikak egiten ditugu, eta horien bidez ari da ezagutzera ematen karrera berri hori.

Zein iritzi duzu gaur egungo arkitekturari buruz?

Une mediatiko batetik igarotzen ari da arkitektura, baina teknologiak saturatu egin gaitu eta gure ideiek atsedean hartzeko unea dela uste dut. Hau da, tradiziozko eraikuntza sistemak garatu, eta kokalekuarekin errespetuz jokatu duen eraikin aldeko apustua egin, baita materialei dagokienez ere.

Zure arkitektura lanen artean, zein duzu gustukoena?

Lanean eman ditudan 24 urte hauetan lan askok asebate naute. Baina asetasun hori ez dator lanaren tamainatik edo medioetan izan duten oihartzunetik, baizik eta norbera egindako lanarekin gustura geratzetik. Horretarako, bezero eta langileekiko tratua egokia beharrezkoa da. 80ko hamarkadan, bi urte eman genituen Agarre garaia zaharbertzen. Garaia kontserbatzea eta sendotzea izan ziren helburu nagusiak; horretarako falta ziren elementuak gehitu egin genituen, lekukotasuna galtzeke. Bakarrak edo oso bereziak ziren piezak gorde egin ziren. Lana artisaerara erara egin zen, eraikinean bertan opaitzurrez lan eginez. Haren ondoren, beste bi urtean Iurretako Ertzila garaia konpondu genuen. Han, pieza berriak jatorriz ziren bezalakoak egin ziren. Bi horiek egurrarekin egindako artisaeraren lanak izanik, esanguratsuak izan ziren guretzat. Bestalde, garai hartan, Gasteizko Campuseko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea egin genuen.

Zabalik

ELENA
LAKA

Abiada berriak

Dagoeneko ezin dut autobide barik bizi. Eibar-Bergara autobidea, alegia. Uler bekit: ezin dut autopistarik gabe bizi autorik, ordenagailurik, Internetik edo sakelako telefonorik gabe bizi ezin dudana bezala. Esan nahi dut, biziko nintzatekeela, baina ez garaiz sekula iritsi gabe. Tresna hauek guztiak lagundu egiten didate dena azkarrago egiten.

Kontua da azken hamabost urteotan, gutxi gorabehera nire lanbiziaren denboraldian, gailu hauek gure bizitzan ezinbesteko egin direla. Ze gogoratzen ditut beste garai batzuk, ez horren urrunak: Eibar-Bergara herriz herri autoestopean egiten genuenekoak (gogoratzen ez denak egin dezala kontu: Eibar-Maltzaga, Maltzaga-Osintxu, Osintxu-Bergara. Suerte bazegoen, Maltzaga-Bergara); nire lehenengo enpleguan memoriadun idazmakina elektriko moderno batekin aritzen nintzenekoa (gogoratzen al da inor horrelako makinarik existitu ere egin zenik?); informazioa hautseztatutako kipulorriko liburu potoloetan bilatzen nuenekoa; telefonoz hitz egiteko gela eta mahai bati lotuta egon behar zenekoa. Zelan zen posible horrela bizitzea?

Emakume baten bizi-esperantzaren erdira ez naiz iritsi, eta dagoeneko hasi naiz iraungitako bizitzeko moduak faltan botatzen. Zalantza daukat kapaz izango ote naizen abiada handiagan murgilduko nauten eta ezinbesteko gertatuko zaizkidan tresna berrien agerpena barneratzeko. Zahartzaroa ere abidan datorkit antza.

Hamar minutu besterik ez dut behar Bergara-Eibar egiteko. Autobidea hartu, tunel luze batean sartu, irratirik ezin entzun, autista, kilimak oinpean Soraluzen eroritako zubitik pasatzerakoan, eta iritsi naiz, lanera edo etxera. Pozik, azkar, oso azkar iritsi naizelako. Hobe ala okerrago den, ez dakit.

Gutunak

Titoren kanporatzea

Orain dela bost urte (1998ko urria), Arrasateko Udaleko arkitektoa, gure lan-kidea zen Tito, kaleratu egin zuten. Duela gutxi, prozedura judizial luze baten ondoren, epaia argitaratu da. Labur-labur hau dio epaiak: inolako frogarik eta arrazoirik ez zegoela langilea kaleratzeko, eta, horren ondorioz Udalak berriro onartu egin behar duela, eta, izandako kalteengatik kalte ordainak ordaindu behar dizkiola.

Honen aurrean ondoko hau adierazi nahi dugu:

1. Gure poza epaileak Titoren alde jo duela. Gure elkartasuna Titorenganako urte hauetan bizi behar izan duen egoeragatik.

2. Gure poza bere momentuan Arrasateko udaletxeko langileok esaten genuena eta hartu genuen jarrera, zorionez, epaiak dioenarekin bat datozelako.

3. Gure salaketa Tito inolako arrazoi objektiborik gabe eta mendeku modura kaleratu zutenen kontra.

4. Gure haserrea halako agintekeriazko jarrera batean, halako neurri desegokia eta harroa hartu zutenen aurrean (Loiti Jauna, EAJ, PSE, EA).

Amaitzeko, pentsatzen dugu arkitektoaren kaltetan erabakia hartu zutenak direla erantzuleak, eta hori dela-eta, Titori barkamena eskatzeaz gain, Arrasateko Udalak epai honen berri (bere ondorioekin) eman beharko liekeela orduko agintariei. Pertsonal batzordean, gai hau jorratu zenean, horixe eskatu zuen sindikatu honek, eta ez zuten onartu.

ARRASATEKO UDALEKO LAB SINDIKATUA
Arrasate

Arrasateko Udalez

ESK-k iritzi hau du gaur arte, 2004ko urtarrilaren 22an Arrasateko udaletxean jorratutako zenbait gairi buruz:

1. Aurrekontuak. Guri ez digu berdina eta ez zaigu ondo iruditzen politikoak ondo ordainduta egotea. Are gehiago, gaizki iruditzen zaigu. Gaizki iruditzen zaigu pertsonalaren gastuak direla-eta, 0 hazkunderari buruz hitz egiten ibiltzea eta alkateari eta zinegotziei (sailen bat izan edo ez) ordaintzen zaizkien soldatetan iguera %100

baino altuagoa izatea (non dago herri-zerbitzura aritze hori?).

2. Azterketak. Uste dugu Udala ez dela kooperatiba elkarte bat, Herri-administrazioa baizik. Hori dela-eta, gaizki iruditzen zaigu neurri barik dirua gastatzea "kasualitatez moduan" MCCko enpresei esleitutako azterketak eta hitzarmenak egiten (horratx, pisuen tasazioak ere LKSk egiten ditu!).

3. Azpi kontratazioak eta lanpostu berriak. Gaizki iruditzen zaigu azpikontratatuak berriztatzea eta, horretarako, ez dute ezta betiko aitakia jartzen: "Zuzeneko zerbitzua bideragarria ote den aztertzen ari gara".

Onartezina iruditzen zaigu dena delako Aldizkari Ofizialetan argitaratutako 2003ko Lan Eskaintza Publiko guztia kentzea (mendekuaren kiratsa?).

Sortuko diren lanpostuak direla-eta, belarriko mina egiten ari zaigu hainbeste entzunda bekadunak eta praktiketan kontratatuak hartuko direla. Gogorazi nahi dugu jurisprudenzia handia dagoela legegaulen inguruan eta ohartarazten dugu lanharremanak estaltzeko bekak salatu egin behar direla.

4. Lan-hitzarmen kolektiboak. ELA-LABek abenduaren 30ean ateratako idazkian, azken bi urte hauetan egin ez diren lan-hitzarmenak direla-eta, autokritika gutxitxo ikusten dugu, ilun samarra da gaur egungo egoeraz ari denean eta harrokeria dario. Sindikatu biek ere gure laguntza izango dute bizitza eta lan-baldintza hobek topatzeko orduan, baina pentsio-planak eta interes-multzak direla eta, zarparran ibiltzeko... gurekin jai daukate!

Aukera hau baliatu nahi dugu adierazteko (norbait ez-jakinean bada ere!) Tito Percas arkitektoari buruzko epaia 5 urte pasatu eta gero atera dela eta Udala derrigortuta dagoela langile hori berriz ere hartzea eta denbora horretan lanean ibili balitz kobratu beharko zukeena ordaintzera. Gertatutakoak bere denboran esan genuena egiaztatu baino ez du egiten:

- Oinarri juridikorik gabeko botere-abusua izan zela, bidegabekeria hutsa.

- Udalkideek sarri nahasten dutela herri-tarrek bozetan ematen dieten aginpidea, herriko talde pribilegiatuenak gustura uzteko edo norberak begiko dituenak lehenesteko bularekin.

ARRASATEKO UDALEKO ESK
Arrasate

Lan egutegiaz gogoeta

Haserrea da hitzik jatorrena zuzendaritzak joan den 2003. urterako aurkeztu zuen Lan Egutegiaz behargin gehienok dugun iritzia adierazteko. Enpresan bosgarren txanda ezarri izanak ekarri du ohiko bi oporraldiak (Udakoa eta Eguberritakoa) aldatu behar izana. Honek eragin die kaltetutako langile gehienei, eta dena, 6 orduko murriztapen ziztrin batengatik! Murriztapen hau barik, eta Zuzendaritzak 15 bat behargin kontratatuko zituen promesarekin, sindikatu nagusiak ontzat hartua zuen ordurako eskaintza. Beren buruek kutxa erregistratzailea bailiran dihardute. 16 kontratatu berri diote... emaitzaren tekla sakatzen dute... ring... ring... ring... eta 16 afiliatu berri agertzen zaizkio pantailan. Primeran! Bete-beteen asmatu dugu!... diote. Dena den, neurri honek familiako giroari edota bizi kalitateari ekar dakizkiokeen ondorio kaltegarriak kontuan hartuz, langileok egiten dugun sakrifizioa leuntzearren, gehiago borroka gintezke.

Urrian egin zen ohiko bileran, LABeko sail sindikalak eman zion enpresako zuzendaritzari taldeko enpresa batzuetan darabilten egutegi ereduak, eta gure ustez, bosgarren txandako beharginen ezar lekiekeena. Egutegiko egitura hau 6 egun jarraian lan egitean eta 4 eguneko atsedaldia hartzean datza, eta hau etengabe. 6 eguneko aste horretan, 2 egunetan egingo litzateke lana goizez, bi egun arratsalde eta beste bi egunetan, gauaz. Esan beharra dago ere, lan egiteko modu honek beren darabilten oniritzia duela. Horrez gain, 2002ko martxoaren 11. buletinean (Osasuna eta txandak) agertzen diren aholkuei gehien hurbiltzen zaizkie.

"Txandean antolamendua: politika zabal bati ekin behar zaio, eta besteak beste, ondoren adierazten diren eragileak aintzat hartuko dira: txandek loaren aldiak ahal den gehien errespetatuko dituzte; gaueko txandak ez dira goizekoak edota arratsaldetakoak baino luzeagoak izango, eta izatekotan, motzagoak izango dira; txanda motzak izateko joera dago..."

Egutegiaren ereduak ezarri ez izana ez da egitura arazo bat. Bi hitzetan esana, zuzendaritzaren egoskorria besterik ez da: hauek zalantzan jartzen dutelako beren lehentasunen artean beharginen OSASUNA dagoela.

Abenduaren 18ko Ohiko Bilera egin baino lehen, gure sail sindikalak Giza

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Baliabideetako sailarekin berba egin zuen, berau hastean, eman ziezazkiguten Egutegiak, eta honela, beharginon ordezkariorok ekarpenak egin genitzan. Horixe jakinarazi genion enpresako zuzendaritzari bilera hartan, baina orduan ere, alferrikakoa gertatu zitzaigun. Behin bilera amaitu ostean, banatu zituzten egutegiak.

Egutegiei egindako aldaketez esan, 5. txandako egutegiari dagozkion egutegiak hasieran zuzendaritzak ekarritakoa hobetzen dutela. Honen arabera, 7 lanegun ostean 2 eguneko atsedenaldia egin ordez, 3koa egiten delako. Hala ere, gure sail sindikalak proposatutakoa nahiago dugu. 4. txandako egutegiari egindako aldaketez esan: Zergatik aurkeztu zen lehen egutegia ez zen 2003ko egutegiaren jarraipena? Hala izan balitz, saihestuko genituzke ostean jazo ziren bi aldaketak eta taldeka lan egindako egunen desoreka (2 eguneko alde izatetik, 5 eguneko izatera igaro dira).

Azkenik, esan, batzordearen gehien-goago zuzendaritzarekiko duen permitibitatea horren handia da, jadanik ez diola eskatzen batzordeari egutegia alda dezan. Aldatu, bere kasa aldatzen du, eta kito! Baina hori bai, kutxa erregistrazaileak lanean dirau: abenduan 3 kontratazio berriak: ring... ring... ring..., hiru afiliatu berri!

BERGARAKO LAB
Bergara

Manu Azkarate askatu!

Hauteskundeak hurbil ditugun honetan, asko ugaritu dira giza eskubiak errespetatu beharrean, inguruan entzun eta irakurri ditugun diskurtsoak. Horietan gehienetan, ezker abertzaleari bere jarrera argi dezan eskatzen zitzaien, implizituki ulertaraziz “beraien inguruko” batzuek bakarrik urratzen dituztela eskubide horiek, edo bai, behintzat, eskubiderik garrantzitsuena, bizitzarena. Bien bitartean, Espainiako Entzutegi guztiz demokratikoak (denok dakigu nortzuen agindupean) Manu Azkarate espetxeratu du.

Manu orain dela 11 urte kaleratu zuten bere gaixotasunaren larritasuna zela-eta. Bere askatasuna ez zuten abokatuek bakarrik eskatu, fiskala bera ere kaleratzearen alde agertu zen, baina 11 urteren ostean ezarritako zigorra oso-osorik bete dezan, berriz espetxeratu dute.

11 urte egin ditu kalean, 11 urte legerik urratu gabe. Denbora honetan guztian familiak osatu du eta bizitza ia normala egin du (oraindik egunero medikatzeko beharra du). Baina, hala eta guztiz ere, berriz kondenatu dute, espetxean poliki-poliki hiltzera kondenatu ere. Hemen ezin izango dio bere gaixotasunari aurre egin, hau dagoen tokirik onena baita gaixotasunak garatzeko, eta espetxe batean izan den edonork daki hori.

Manuk, kalean egon den denboran, bere gaixotasunari aurre egitea lortu du, baina hemen ez ditu kanpoko baldintzak. Ezinbesteko dituen baldintzok espetxean desagertu egiten dira eta gaixotasuna berriz sortzeko tokirik aproposena da hau. Praktikoki, Espainiako Entzutegiak berriz gaixotzera kondenatu du eta bera hori onartzeko prest ez dagoenez, inon inoiz har daitekeen borrorik latzena hartzea erabaki du. Gose, egarri eta medikazio greba hasi du.

Berriz hasierako ildoari eutsiz, zera galdetu nahi genieke EAJ, EA, Aralar eta batik bat Ibarretxe zein Imaz jauneei. Autodeterminazioaren aldeko hitzarmena egiteko ezker abertzaleari jarri ditzkiozuen baldintzak jarriko al ditzkiozue elkari? Eta unea iristen denean, espainiar indarrei? Kondenatuko al duzue, beraz, Manurekin gertatutakoa? Eta egiten ez duenarekin ezker abertzalearekiko bezain jarrera irmoa erakutsiko al duzue? Itzartutako legeak eta aurrekontuak bertan behera utziko al dituzue? Ez gaitezen engaina, denok dakigu ezetz. Mendekuaren politikak oraingoan egindakoa izugarri larria bada ere (lehen ere esan dugu bizitzaren aurkako erasotzat jotzen dugula) beldur gara denbora gutxian gertaera honen arduradun nagusiekin ez ote zaituztegun tratuan ikusiko. Oraingoan ere argi eta garbi ikusi dugu, Espainiako demokrazian, mendekuaren politika giza gabea dela nagusi, baina ez al zarete jada politika horien arduradunekin mahai azpiko jolasetan hasiak?

Bukatzeo zera adierazi nahi dugu, inork mendekua ardatz duen politika horren aurkako neurririk hartu ezean, gertaera honi erantzun egokirik eman ezean, Manu espetxeratu duten bezalaxe espetxeratu dezakete azken hogeitau urteotan gaixotasun larri sendaezinak zituztela-eta kaleratu dituzten norbanako guztiak. Kanpoan urte luzez bizitza normala eginagatik ez dira salbu egongo, behar bada, hurrengoan ere, gobernuko alderdiak jarrera gogorra erakutsi nahian beste edozein espetxeratu du.

LUIS MARI AZKARGORTA ETA
KARMEN IRIZAR PRESO POLITIKOAK
Martutene

Ibarreko alkateen lotsagabekeria

Joan zen eguaztenean, hilaren 21ean, Jherri honek bere politikarien aldetik jasaten duen mespretxu berri baten lekuko izan gera.

Arrasaten, Mankomunitateko burua, bailarako alkateak eta MCCko presidentea, Alvaro Amman Garraio sailburua-rekin bildu ziren inguruko azpiegitura proiektuak aitzakia hartuta (autopista, AHT, tranbia) hauen bultzapen-jarrailan lantalde bat eratzeko.

Politikari hauek, Ibarretxe buru dute, esan eta esan ari dira elkarrizketa, eztaba eta herritarren parte-hartzea ezinbesteko eta modu egokiena direla, gizarteak dituen arazo eta erronkei irtenbidea emateko.

Ez da denbora asko, gure bailarako alkateak negarrez ari zirela, Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ez zitelako parte-hartze zuzenik izaten utzi Lurralde Zati-kako Planen egituraketan.

Aldi berean, politikari beraiekin ez digute inolako aukerarik uzten (ez herritarrei, ezta bestelako agenteei) bailarako etorkizunerako hain izugarri eta itzulezin izango diren proiektu hauen informazio, eztaba eta parte-hartzean. Bai kontraesan lotsagabea!

Aldiz gustu askoz gonbidatzen dute MCCko presidentea (makaleko botere faktikoa bera), bestelako gizarte taldeei (sindikatu, alderdi, ekologista, baserri-tar, e.a.) ateak itxiz eta eztaba publiko ukatuz eta ezinezko eginez.

Beraz, gure ustetan nahitaezkoa da honen inguruan informazio garbia ematea herritarrei eta benetako eztaba publiko baten bidez erabakitzea zer den komeni zaiguna arazo hauei irtenbidea aurkitzeko, eta ez, ohitu nahi gaituzten inposaketa jasanezin hauek isilpean onartzea.

AHT GELDITU! ELKARLANA
Debagoiena

Lapur maitea

Zer moduz zabiz nere bizikleta gorri beltzan gainian? Ni pixkat triste nao, egunero nerekin zeuan laguntzua, oin dala bi astetik ez dotelako ikusten.

Nere bizikletatxua, lehen urdina ta lila zan, baina nik izugarriko maitasunakin (nere estilo propio bat emateko asmua-kin), gorri ta beltzez margotu neban. Nire terrasatxuan astebete pasau neban eral-

datzen. Ta halaxe hainbeste esfortzuren ondoren, bukatu neban margotzen.

Geroz eta maitxasun geixau hartzen jun nintzen, eta egunero ni juaten nintzan lekuetara nerekin etortzen zan; oin dala bi asterarte zuk kendu zoztazun arte. Nahiz eta eguraldi txarra edo ona in, han zeuan nere lokaltxuan neri itxoitzen, bueltatxo bat emateko goguakin. Azkenian nere zati bat moduan bihurtu zan, eta zuk ezebe esan gabe hartu eta zurekin eraman zinu. Galdetu jatzu inoiz, ea nahi zeban zurekin jutia? Nere ustez erantzuna ezezkoa izango zan.

Lapur maitea, karta hau irakurtzen badozu, pentzau ondo ze in dozun, eta emun buelta batzuk zure buruaki, bizikleta hartzeko momentuan eman zotzazun moduan. Neretzat ez zan gauza material bat bakarrik, balore sentimental bat zeukan. Karta honek zeozetarako balio izaten botzu, bueltatzeko modua topaukozu zuk nahi baldin bozu. Zure esku dago.

Gorroto handiz bi muxu.

AMAIA OSA
Bergara

Mikel Irizarri

Hi, lasai, mutil. Ez hago susmopean. HAspalditik jakixau MCCren *hooligan*-a hazena. Hi, Mikel, eta Arizmendiko langileen soldata eta kontratuez noiz irakurriko juau *Piperrautsua*-n.

GOIENKARIA ere etxak susmopean. Ezta hurrik emun be. Mikel Irizar eta GOIENKARIAren arteko koordinazioa erabat ereduagarria dok. Kazetaritza masterretan erakusteko moduko adibide aparta. Danok ere bide horretatik jarraitu.

JOSEBA BEÑAT ELORTONDO
Oñati

Diru bilketa

Beste urte batez, Gabon jai hauetan Bere, gure senide eta lagun presoan aldeko diru bilketa izan da herrian. Lerro hauen bidez, Etxerat erakundeak eskerrak eman nahi dizkizue lan honetan ibili zareten guztioi, baita ere zuen elkartasunagatik ekonomikoki lagundu gaituzuenoi. Zuen elkartasuna gure konpromisoa delako, mila esker, denoi!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

HURRENGO EZTABADAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Abertzaleak bat eginda aurkeztu beharko liriateke datozen hauteskundeetan?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzasu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Disenua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Podiuma

Julian Gorospe | EUSKALTEL-EUSKADIKO ZUZENDARIA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

Txirrindulari ohia eta egun Euskaltel-Euskadi taldeko zuzendaria da mañariarra. Asteon Eskoriatzan izan da eliteko kirolari moduan bere ibilbideari buruz berbetan. Gurekin ere hortaz jardun du, besteak beste.

Txirrindularitza bizikleta gainean probatu ostean, orain zuzendari lanetan diharduzu. Nola ekingo diozu seigarren denboraldiari?

Denboraldi berri bat hasteak guretako beti du xarma berezia. Iazkoa ona izan zen eta aurten hobetzea da gure nahia. Txirrindulariak, behintzat, gogoz daude. Horretarako, osasuna eta zortea beharrezkoak dira, baina gaintzekoa guk, txirrindulariek eta taldeko teknikook, ipini beharko dugu.

Aurten zure agindupean izango diren txirrindulariei buruz zer esan dezakezu?

Denak ezagutzen ditut ondo, eta bakoitzak badauki zein lasterketatan jardungo duen. Txirrindulariei proba bakoitzean ahalgintzeko baino ez diet eskatzen. Azken batean, eguneroko lanean ikusten da bakoitza nola dabilen. Batzuk azkarrago hasiko dira eta beste batzuk lasaiago, beste helburu batzuk dituztelako. Denboraldi hasierarako, Dabid eta Unai Etxebarria eta Samuel Sanchez ikusten ditut ongi; eta Tourrerako, Iban Mayo eta Haimar Zubeldia izango dira gizotik indartsuenak. Gaintzekoak laguntzera joango dira eta horien ondoan egotera.



Julian Gorospek eliteko kirol bizitzaz jardun zuen Eskoriatzan.

“Denboraldi hasierarako, Dabid eta Unai Etxebarria eta Samuel Sanchez ikusten ditut ongi; Tourrerako, Mayo eta Zubeldia”

“Elite mailako kirola gogorra da, baina gustukoan jardunez gero, polita ere izan daiteke”

Zein dira aurtengo denboraldirako taldearen helburuak?

Helburu nagusia, dudarik gabe, Tourra izango da, Tourrean emaitza onak lortzea gehiago baloratzen baita. Hala ere, lasterketa guztiak dira garrantzitsuak: Euskal Herriko Itzulia, Paris-Niza, beste itzuli batzuk, eta klasikoak ere

bai. Garaipenek beti ematen dute zeresana, baina irabaztea oso zaila da.

Txirrindulari bezala elite mailan ibilitakoa zara. Gogorra da eliteko kirolaria izatea?

Gogorra da bai, baina gustuko kirolean jardunez gero, polita ere izan daiteke. Elitean, kirola lan bezala hartzen da eta helbu-

ruak eta eskakizun maila altuagoak dira. Hortaz, alde horretatik, gogorra izan daiteke txirrindulariarendako. Gauzak ongi aterata ezean, urduritu egiten gara, eta horretarako nork bere aldetik asko jarri behar du. Nik taldean laguntza ematen nuen, eta, elite mailan jardun arren, asko baloratzen da taldekideen arteko giro ona.

Zu lasterketetan ibiltzen zinen garaitik, asko aldatu dira gauzak txirrindularitzan?

Bai, noski, eta onerako gainera. Materialak, presaketa, osasun eta jatekoaren kontrolak... Errepi-deak ere asko aldatu dira.

Txirrindularitzak zer eman eta kendu dizu?

Kendu ezer ere ez, urte asko eman baititut gustura lanean. Eman, berriz, dena. Gaztetan hasi nintzen gustuko kirola nuela, eta gero 13 urte eman nituen profesionalean eta beste zazpi zuzendari modura, eta niretako bizikletako bizitza dena izan dela esan daiteke.


Nola gozaten duzu gehien bizikletan: lehian, zuzendari postutik ala asteburuan lasai ibiltzen?

Modu guztietan. Lehen, lehian gustura ibiltzen nintzen, baita orain ere bizikletan buelta bat ematera irteten naizenean. Zuzendari modura ere pozik dihardut, baina lana izanik, batzuetan txirrindulariei hainbeste eskatzea gogorra egiten zait.

Debagoienean nola kokatu dago?

Amateur mailako txirrindularien jarraipena egiten dut, eta profesionaletarara pasatzen dira batzuk. Nahiko maila ona dago.

Kirolabur



GIMNASIA ERRITMIKOA/ARRASATE

Bihar, zapatua, Arrasateko Uarkape pilotalekuan, Eskola arteko gimnasia erritmikoko txapelketaren lehenengo fasea jokatu, da goizez eta arratsalde. Gipuzkoako eskoletatik etorritako 70 neska hartuko dute parte, taldeka eta bakarka. Arrasateko Dragoi Gimnasia Kirol Taldetik honako neskok jardungo dute: Ainhoa Apaolaza, Saioa Arriola, Jone Goikolea, Leire Poyato, Mireia Rodriguez, Marta Etxebarria eta Naiara Zabartek.

FRONTENISA/DEBAGOIENA

Joan zen domeka goizean jokatu ziren, Aretxabaletako kirol etxean, 2003ko Frontenis Masterreko finalerdiak eta finalak. Iaz Arrasaten, Bergaran eta Oñatin jokatuak txapelketetan emaitzarik onenak lortu zituzten zortzi bikoteek hartu zuten parte masterrean. Finalerdietan, Mendozak eta Lopezek 25-21 irabazi zieten Barkalari eta Bellancori; Sanchezek eta Garciak 25-18 irabazi zieten Vallejos eta Albuuari. Eta finala 30-19ko emaitzarekin amaitu zen, eta irabazleak Mendoza eta Lopez izan ziren.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Erregional mailako ibarreko lau futbol taldeek 22. jardunaldia jokatu dute asteburuan, etxean. Zapatuan, 16:30ean, aretxabaletarrek Trintxerperen aurka neurtuko dituzte indarrak; oñatiarrek, berriz, Beti Gazteren kontra. Domekan, Bergarakoek zarautarrak, liderrak, izango dituzte aurrez aurre, 16:00etan hasiko den partiduan. Mondra 16:15ean hasiko da Touring-en aurka jokatu. Horren harira, behin 21 partidu jokatu, Mondra, Aloña Mendi eta Bergara, laugarren, bosgarren eta seigarren postuetan dira sailkapenean, hurrenez hurren. Aretxabaleta, berriz, hamargarrenean.

KIROLDEGIA/ANTZUOLA

Antzuolako kiroldegi berria izango denaren aurreproiektua egin dute dagoeneko, baina behin betikoa noiz prestatuko duten oraindik ez dakite. Horretarako, herriko kirol taldeen iritzia hartuko dituzte kontuan. Aurreproiektuaren arabera, eraikinak bi zati izango ditu: maila altuenean, frontoia, gimnasioa, aldagelak... egongo dira eta behean, hainbat pista: eskubaloia, saskibaloia, areto futbola... Bigarren zatiak teilatu laua izango du; hortaz, gaineko aldean, tenis pistak egiteko aukera egongo da. Aurreproiektuan, ez dute igerilekurik aurreikusit.


ESKIA/OÑATI

Aloña Mendi elkarteko eski sailak denboraldi honek atarako hainbat irteera antolatu ditu. Lehenengoa Baqueirara egingo dute otsailaren 6tik 8ra. Hurrengo, Formigalera otsailaren 13tik 15era bitartean. Martxorako bi irteera daude iragarrita: Formigalera martxoaren 12tik 14ra eta Pas de la Casara San Joseko zubian. Denboraldia amaitzeko Alpeetara bidaiatu dute, Italia eta Suitza arteko Cerviniako eski estazioa. Hala ere, aurrez iragarri dute autobus bakarra izango dela bertara joateko. Bestalde, Bergarako Pol-Pol elkarterekin batera Tignes edo Sestriereserako autobusa ere izango da. Interesatuok Aloña jo, martitzen edo eguazteten, 19:00etatik 20:30era.



Maidier Unda, Espainiako txapeldun borrokan

Argazkian Maidier Unda oletarra agertzen da, entrenatzailearekin. Seigarren urtez lortu du Espainiako txapeldun izendapena Aramaio-koak. Borroka librean jarduten du eta orain dela gutxi Xixonen jokatuak emakumezkoen ligan eskuratu zituen urrezko domina eta diploma. Orain, Madrilan da, gogor entrenatzen. Izan ere, martxo hasieran, Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko probak izango ditu Tunisian.



Amaia Udal Antzokia **OTSAILA**

HAUR ZINEMA

BUSCANDO A NEMO

Otsailak 1, domeka, 17:00.

LOONEY TUNES

Otsailak 8, domeka, 17:00.

EL CID: LA LEYENDA (EUSKARAZ)

Otsailak 29, domeka, 17:00.

ZINEMA

LOVE ACTUALLY

Otsailak 1, domeka, 19:00 eta 22:00.
Otsailak 2, astelehena, 20:30.

NOVIEMBRE

Otsailak 6, barikua, 20:30.

MASTER AND COMMANDER: AL OTRO LADO DEL MUNDO

Otsailak 8, domeka, 19:00 eta 22:00.
Otsailak 9, astelehena, 20:30.

ELEPHANT

Otsailak 13, barikua, 20:30.

EL SEÑOR DE LOS ANILLOS: EL RETORNO DEL REY

Otsailak 14, zapatua, 17:00 eta 21:00.
Otsailak 15, domeka, 17:00 eta 21:00.
Otsailak 16, astelehena, 20:00.

HOMBRE SIN PASADO

Otsailak 20, barikua, 20:30.

PLANTA 4ª

Otsailak 21, zapatua, 19:00 eta 22:00.
Otsailak 23, astelehena, 20:30.

LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS

Otsailak 27, barikua, 20:30.

EL ÚLTIMO SAMURAI

Otsailak 28, zapatua, 19:00 eta 22:00.
Otsailak 29, domeka, 19:00 eta 22:00.
Martxoak 1, astelehena, 20:30.

KONTZERTUA



MUSIKENEO ORKESTRA SINFONIKOA

Otsailak 7, zapatua, 20:00.


IKUSKIZUNA

GOLDEN APPLE QUARTET: "17 AÑOS GOLDEN"

Otsailak 22, domeka, 19:30.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Arratzain Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL 943 58 09 74

- Urtarriletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik



Aulia Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Bertako janaria.
- 110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- "Tolare" sagardotegia



Elutxeta Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaerara arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- "Tolare" sagardotegia



Iturrieta Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik



Ixaun Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- Martitzen eta eguaztenetan itxita
- 55 lagunendako lekua



Larre-Gain Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakailaoa saltsan eta tomatearekin), aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan zabalik
- Aste bukaeran egun osoa zabalik
- Astelehen eta domeka gauean itxita
- "Tolare" sagardotegia



Otatza Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Eguaztenetan itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egun osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- "Tolare" sagardotegia



Uxarte Montorra 6 / ZORNOTZA
94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- Sagardotegiko menua
- 80 lagunendako lekua
- "Sagardaogintza"



Zabala Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- 150 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- "Tolare" sagardotegia

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 30a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren 30etik
otsailaren 6ra



1917ko argazki horretan, Bergarako Santa Anako zedroa idiekin zelan garraiatzen duten agertzen da.

ZAHARRAK BERRI

GOITB-KO 'IRAGANA GOGORATUZ' SAIOAK LANBIDE ZAHARRAK DAKARZKIGU GOGORA

Datorren martitzenean, otsailak 3, eskainiko du GOITBk *Iragana gogoratuz* saioaren bigarren atala. Ordu erdiko erreportaje horrek gure herriotan baserritarren eta jauntxoaren bizimodua eta usadioak azalduko ditu. Programak gure herriotako historiaren atal bat gertuagotik ikustera gonbidatzen gaitu; hain zuzen, kapitulu bakoitzean lanbide zahar bana aztertuko du, oso modu dibul-

gatzailan. Hamabi erreportajetan, Debagoienean esanguratsuak izan diren beste hainbeste lanbidetan sakonduko du: armagintza, larrugintza, lihogintza... Bi astean behin emitituko dute.

FAGORREK ETA GOIENAK EGINA

Iragana gogoratuz Fagorren eta Goienaren arteko lankidetzaren fruitu da; biek hitzarmena sinatu

zuten ibarreko industriaren historia euskaraz aditzera emateko.

Saioaren gauzarik bereziena da ohitura haiek bizi eta ikusi izan zituzten debagoiendarren testigantza jasotzen duela. Izan ere, baliteke etorkizunean erreportajeok beste kate batzuei saltzea edo ibarreko erakundeok dokumentu moduan erabiltzea. /14
LEIRE KORTABARRIA

HISTORIA/ 'IRAGANA GOGORATUZ' SAIOA GOITB-N

Antzinako lanbideak protagonista

FAGORREK ETA GOIENAK EGINDAKO 'IRAGANA GOGORATUZ' SAIOAK DEBAGOIENENKO ANTZINAKO BIZIMODUA GOGORATZEN DU

LEIRE KORTABARRIA

Gure ibarrean esanguratsuak izan ziren eta, kasu batzuetan, oraindik bizi irauten duten lanbideak dira protagonista Goienak eta Fagorrek egindako *Iragana gogoratuz* saioan. Bigarren kapitulua martitzenean emitituko du GOITBk, bi alditan, 20:30ean eta 22:30ean.

Lanbide zaharrak desagertuz doaz azkar asko, eta Fagorrek eta Goienak iragan hori gogoratzeko aukera ematen diete debagoienak guztioi *Iragana gogoratuz* saioan. Maria Agirre kazetariak eta Jose Antonio Azpiazu historialariak idatzi dituzte gidoiak, eta Iban Toledo arduratzen da alde teknikoaz.

Lehen kapitulua, basoko lanbideen gainekoa, urtarrilaren 20an eskaini zuen GOITBk, eta hurrengo otsailaren 3an emitituko da. Baserritarren eta jauntxoaren bizimodua eta orduko baserriko lanbideak izango dira berbagai. Maria Agirrek dioen bezala, "bizimodu horrek orain dela gutxira arte iraun du, eta Debagoienez horren arrasto asko dago; esate baterako, baserriotan ogia egiteko ohiturak jarraitu egin du".

HEMENDIK EKAINERA ARTE

Iragana gogoratuz bi astean behin emitituko dute, martitzenean, 20:30ean eta 22:30ean. Hamabi kapitulu daude; hortaz, ekainera arte egongo da antenan.

Kapitulu bakoitzean, lanbide edo bizimodu mota jakin batean sakonduko dute. Datozen erreportajeek honako gaiak proposatuko dituzte: baserriko lanbideak jauntxoaren garaian; ferratzaile eta errementariak; eta



Bi baserritar emakume, goroetan, hau da, lihotik haria egiten.

JAIONE ISAZELAIA

ehungile eta lihogileak. Hortik aurrera, besteak beste, armagintza, larrugintza, petrikiloak eta medikuntza modernoaren hasierak Debagoienez, kooperatibismoa, Gatzagako gatz ekoizpena eta Oñatiko txokolategintza... izango ditu saioak aztergai.

Gure ibarreko historia da protagonista; eta, posible den kasuetan, lekuko hitzak jasotzen saiatu dira arduradunak.

ATEA ZABALIK

Iragana gogoratuz saioaren helburua gure historiaren zati baten berri modu dibulgatzailean ematea da. Hala ere, Maria Agirre arduradunak dioen bezala, "etorkizunean historiaren atal horien gainean egiten diren ikerketendako oinarri eta abiapuntu bezala balio dezakete erreportajeok". Zabalik geratzen den begirada proposatzen du, hortaz, saioak.

MARIA AGIRRE / KAZETARIA

"Zuzeneko testigantza jasotzen dugu"

Bi lagunek idatzi dituzte *Iragana gogoratuz* programako gidoiak: Maria Agirre kazetari aretxabaletarrak eta Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak. Mariak eman dizkigu saioaren berezitasun gehiago.

Zer da *Iragana gogoratuz* programaren bereizgarria?

Lanbide zaharrak gogoratzen ditugu, eta kapitulu bakoitzean, lanbide horiek bizi edo ikusi izan dituen herritarrokin berba egiten saiatu gara. Lekukoen testigantza zuzen hori jasotzea da saioaren berezitasun garrantzitsu bat.

Lehen emanaldiaren harreraren berri jaso duzue?

Oraindik oso goiz da horretarako; hala ere, nor edo nor etorri zait hurrengo saioa noiz emitituko genuen galdezka.

Bigarren kapitulua otsailaren 4an emitituko da. Aldaketarik egongo da lehenengoaren aldean?

Bai: aurrerantzean, kapitulu bakoitzak sarrera edo aurkezpen bat izango du, eta hurrengo kapitulua ere iragarriko dugu; neuk egingo ditut bi tarteok.

Balio dokumental handiko programak izango dira, hortaz, batez ere hemendik urte batzuetara. Beste aukerarik eskaintzen du programa horrek?

Debagoieneko erakunde edo taldeek interesa izan dezakete programa hauetan, bai; izan ere, gure herrietako sasoi bateko bizimodua, langintzak, ohiturak... gainbegiratzen ditugu, eta behar bada interesgarria izan daiteke udalendako, ikastetxeendako... hezkuntza moduan, edo agiri bezala gordetzeko.

Aurrera egiguzu ikusi ahal izango dugun bitxikeriaren bat edo beste...

Adibidez, lihogintzaren inguruko kapituluan, 1974ko irudi batzuk ikusi ahal izango ditugu. Han, Oñatiko Zubillaga auzoko Eufemia Zubiak haria zela egiten zuen ikusten da.



Maria Agirre kazetaria.

Laster ikusi ahal izango ditugun hainbat kapitulu



BASERRIKO BIZITZA

Jauntxoak nagusi izan ziren ibarrean, eta baserritarrak horren arabera bizi ziren. Hori delata, hainbat langintza eta ohitura zeuden, orain dela gutxira arte iraun dutenak.




ERREMENTARIAK

Baserriko tresna gehienak errementariak egiten zituzten, eta eurek ipintzen zizkieten ferrak abereei. Arrasaten, Oñatin... oraindik badaude errementari eta ferratzaileak.



LIHOGINTZA

Oihalak erosterik ez zegoenean, etxe bakoitzak lihoa erein eta etxe emakumeok haria egin behar izaten zuten. Gero, ehuleari eraman haria, eta hark ehuna egiten zuen.



ARMAGINTZA

Armagintzak garrantzi handia izan zuen Debagoieneko ekonomian. Udalatxetik ateratako mineralak altzairu bikaina egiten zen; Oñatin eta Elgetan lantzak egiten zituzten...



MEDIKUNTZA HASTAPENAK

Ibarrean gaur egungo medikuntza zela garatu zen ikusi ahal izango dugu. Petrikiloen berri jasoko dugu; eta ibarreko tuberkulosi-ospitaleetan hasitako tradizioa gainbegiratuko da.

ARGITALPENA/ 'GIPUZKOAKO TURISMO GIDA, 88 UDALERRI'

Ibarra hobeto ezagutzeko aukera

DIPUTAZIOAK ATERA DUEN TURISMO GIDAK GIPUZKOAKO UDALERRI GUZTIAK BILTZEN DITU, DEBAGOIENEKOAK BARNE

USOA AGIRRE

Gipuzkoako Turismo Gida, 88 udalerririk osatutako liburua aurkeztu zuten joan den martitzenean Diputazioan. Gipuzkoako udalerririk guztien berri ematen du gidak, eta Debagoieneko zortzi udalerririk ere badute euren lekua. Jose Maria Perez eta Maria Angeles Gurrutxaga dira gidaren egileak.

Turismoak gero eta garrantzi handiagoa du Gipuzkoako jardueran ekonomikoan. 2003a, bisitarien kopuruari begiratuta, urterik onena izan zen. Baina turisten egonaldiak luzatzea da Diputazioaren erronka, eta horretan liburuak lagun dezake.

Gipuzkoako herri guztien zenbait datu interesgarri ematen da gidaliburuan, hamar ataletan banatuta. Lehenengoan, herriaren kokapena aipatzen da. Ondoren, herrira iristeko dauden moduak jasotzen ditu gidalibu-

ruak. Jarraian, herrira iristeko dauden garraio bide erregularak jasotzen ditu, garraio publikoak nola iritsi, alegia. Laugarren puntuak herriaren historiari erreferentzia ematen dio; noiz sortu zen, gertaera garrantzitsuenak zein izan ziren eta herriarekin lotutako kondairak.

MONUMENTUAK ETA MUSEOAK


Erakargarri turistiko nagusia da liburuaren bosgarren puntua. Seigarrenean, berriz, monumentuak, museoak eta bestelako erakargarriak jasotzen ditu. Gipuzkoako gainontzeko herrietan moduan, Debagoienean ere monumentu historiko asko ditugu. Bergarako Errege Mintegia eta Oza-eta jauregia; Arrasateko San Isidro basiliza eta Iturriozko atea; eta Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea aipatzen ditu gidaliburuak, beste askoren artean.

Herri bakoitzeko jai garrantzitsuenen berri ere ematen du

gidaliburuak. Herriaren helbide eta ostatuak dira azken bi puntuak. Lehenengoak herriaren helbide elektronikorik duen eta turismo bulegorik duen adierazten du. Bigarrenak, berriz, lo egiteko dauden aukerak jasotzen ditu.

Gidaliburuaren eranskinean Gipuzkoa ezagutzeko hainbat ibilbide proposatzen dituzte egileek. Lau dira guztira: Gipuzkoako kostaldeko ibilbideak; Hiru Tenpluen ibilbidea; Burdinaren ibilbidea; eta Museoen ibilbidea. Hiru Tenpluen ibilbidean du lekua Debagoienak; izan ere, Loiolako santutegia, Arantzazuko santutegia eta Zumarragako Antiguako basiliza biltzen ditu ibilbide horrek.

350 orrialde ditu, eta euskarazko eta erdarazko aleak kaleratu dituzte. Liburutegietan eta Diputazioan izango da salgai, 15 euroren truke. Gipuzkoan zehar txango interesgarria egiteko aukera ematen digu liburuak.





Hiru Tenpluen ibilbidean dago Arantzazuko santutegia.

GOIENKARIA

Aitaren ziklostatiak ganbaran traba egiten dizu?

Ba, inoiz baino errazago duzu.
Deitu Mankomunitateko traste zaharren zerbitzura.

943 71 19 38



ETXEKO TRASTE ZAHARRAK JASOTZEKO ZERBITZUA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

OTSAILTIK AURRERA, BILKETA EGUNAK ALDATUKO DIRA

Urt. 30-Ots. 6

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARAMAIO

► **Munduari bizikletaz buelta** zelan eman zuen azalduko du Eneko Etxebarrieta gasteiztarrek gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:00etan, Txirritola euskara elkartearen eskutik.

► **Gobernuz kanpoko erakundeen** gaineko astearren barne, azken ekitaldiak egongo dira gaur, egubakoitza. Hain zuzen, salneurri egokiko produktuen denda egongo da zabalik kultura etxeko sarreran 17:00etatik 19:30era.

ARETXABALETA

► **Aretxabaleako Institutuak** 25 urte egin dituela-eta, ekitaldia egongo da gaur, egubakoitza, institutuan bertan, 12:00etan. Bideo emanaldi bat eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuaren eta Arritxu Oliden alkatearen hitzaldiak egongo dira.

► **Rukullakta proiektuaren** gaineko hitzaldia egongo da hilaren 4an, eguaztena, Udaletxe Zaharrean, 19:00etan.

► **Curtis-era martxa** egingo dute otsailaren 13an, Kepa Urrak 12 urte bete dituela-eta kartzelan. Izena emateko, jo Urbaltz tabernara.

ARRASATE

► **Gazte Astea** deitu du Gazte Kontseiluak. Honako ekitaldiak antolatuta dituzte datozen egunotan: bihar, zapatua, tortilla lehiaketa, bertso triki-poteoa eta tortilla dastatzea, Herriko Plazan, 16:30ean; etzi, domeka, puzgarriak eta tailerrak, Laubiden, 10:00-14:00; astelehenean, otsailak 2, grafiti erakustaldia, Herriko Plazan, 17:00etan; martitzenean, hilak 3, makillaje artistiko erakustaldia eta argazki erakusketa, Harresi aretoan, 17:00-20:00; otsailaren 4an, eguaztena, ume eta gaztetxoendako panel margotzea, herriko hainbat auzotan, 17:00etan; hilaren 6an, egubakoitza, panelon erakusketa, 17:00etan; txistorra eta sagardo jana, 17:30ean, biak Herriko Plazan; eta perkusio kalejira, 19:00etan.

► **Euskaldunen ilargi egutegia** hitzaldia egingo du Josu Naberanek otsailaren 4an, eguaztena, Monterroren, 19:30ean. Gai horren gaineko

liburua eta egutegia aurkeztuko ditu. Mondragoetarrak taldeak antolatu du.

► **Helduen Hezkuntza Ikastetxeak** matrikula epea zabaldu du. Argibideetarako, deitu 943 77 11 72 telefonora.

BERGARA

► **Batxiler ondoren, zer?** delako gurasoendako orientazio zikloa antolatu du Ipintza institutuak. Honako ekintzak egongo dira: otsailaren 3an, martitzena, Unibertsitatearen gaineko jardunaldia, Ipintzako aretoan, 19:00etan; eta hilaren 5ean, eguena, Lanbide Heziketaren gaineko berbaldia, Migel Altunako aretoan, 19:00etan.

► **La alimentación en el Real Seminario de Bergara** delako hitzaldia egingo du Santiago Piquero Zarauz adituak otsailaren 3an, martitzena, Migel Altuna Institutuan, 19:30ean.

DEBAGOIENA

► **Errepresioari stop. Euskal presoak Euskal Herrira** leloarekin eskualde agerraldia egongo da bihar, zapatua, Aretxabaletan, Mitarte kaletik abiatuta, 18:30ean. Segidan, triki-poteoa eta afora egongo dira.

► **Erljio bizitzaren eguna** ospatzen da otsailaren 2an, astelehena. Hori dela-eta, bihar, zapatua, otoitzaldia egongo da Arrasateko Kontzeptzionisten monasterioan, 21:00etan.

ESKORIATZA

► **Guraso eskolan** izena emateko epea zabalik dago. Otsailaren 6a, egubakoitza, da mugaeguna. Udaletxean zein kultura etxean egin ahal izango duzue matrikula.

OÑATI

► **The Clash taldearen gaineko dokumentala** eskainiko dute datorren egunean, hilak 5, gaztelekuan, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Espainiako gerraren** inguruko erakusketa bisitatzeko aukera egongo da asteburu honetan, urtarrilak 31 eta otsailak 1, Orlan etxean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

ARAMAIO

► **Gobernuz Kanpoko Erakundeen** lanaren inguruko argazki erakusketa egongo da zabalik kultura etxean gaur, egubakoitza.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Detraka** kale-antzerki emanaldia egongo da etzi, domeka, Seber Altube plazan, 18:00etan.

► **Rekoloclown (drogak larrugorritan)** antzezlan eskainiko du Oihulari Clown taldeak eguenean, hilak 5, Gaztetxean, 17:30ean.

BERGARA

► **Las punkis también lloran** antzezlan eskainiko du Detritus Teatru taldeak gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Griot ipuin kontalariak** emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Unibertsitatean, 22:00etan.

ESKIATZERA!



Martxoaren 6an eta 7an
DEBAGOIENETIK
eskiatzera Astunera

114
euro pertsonako

Prezioan barne: Autobusa, bi egunetako erremonteak, bi egunetako eskiatzeko pistetako aseguruua, Jacan gau bat, pentsio erdia, garraio aseguruua

IRTEERAK:
ESKORIATZA 05:00etan (Aketia autobus geltokian)
ARETXABALETA 05:10ean (Azbe autobus geltokian)
ARRASATE 05:15ean (Garibaiko autobus geltokian)
BERGARA 05:30ean (Ibargaraiko autobus geltokian)

Viajes Eroski
Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es



► MUSIKA

ARRASATEKO II. CANTE FLAMENKO LEHIAKETAKO FINALA BIHAR

Bukatzeaz dago Al-Andalus kultura elkarteak deitutako II. Cante Flamenco lehiaketa. Honako abeslariak parte hartuko dute: Carlos Arrabal (Kordoba), Jose Davila (Badajoz), Bartolome de Haro (Jaen), Jose Lara (Malaga), eta Mari Jose eta Montse Perez ahizpek (Almeria). Ekitaldiak hiru ordu pasatxo iraungo du, eta bertan aukeratu dute aurtengo irabazlea. Al-Andalus elkarteak dantza taldeak ere ikuskizun laburra egingo du. Nahi duen guztia joan daiteke publiko moduan, eta sarrera doan izango da. Sarietako dagokienez, irabazleak 1.000 euro eta trofeoa eskuratuko ditu; bigarren sailkatuak, 700 euro; hirugarrenak, aldiz, 400.

Non: Amaia Udal Antzokian. **Noiz:** urtarrilaren 31n, egubakoitza. **Ordua:** 19:00etan. **Sarrera:** doan.

AIPAGARRI

Maite Toledo

ANTZUOLA

Ortzadar Ipuin Lehiaketa-Xabier Leizaola sarietan aipamen berezia jaso du Maite Toledoren *Inaxi Sardaneta* ipuinak. *Deia* egunkariaren *Ortzadar* literatura gehigarriak antolatzen du sariaketa hori. Guztira, 151 ipuin jaso dituzte; horietatik, 31 euskarazkoak eta 120 gaztelerazkoak.



Aitor Mantxola

OÑATI

Alvaro Fernandez Armeroren *El juego de la verdad* filmeko argazki zuzendaria izango da Mantxola. Oraingo astean joan dira Argentinara eta otsailan hasiko dira errodutzen. Besteak beste, filmean parte hartuko dute Tristan Ulloa, Natalia Berbeque eta Maria Estevez aktoreek.



Garazi Orobengoa

LEINTZ-GATZAGA

Aretxabaletako Loramendi elkarteak antolatutako literatura lehiaketako sariak aurreko astean banatu zituzten. Garazik irabazi zuen lehen saria, grabaketaren atalean. Beste irabazle batzuk: Adrian Aginagalde, Lide Arenaza, Markel Uriarte, Alazne Martin, Lide Mar...



HILDAKOAK


- Antonio Gomez Melgar.** Oñatin, urtarrilaren 19an. 74 urte.
- Francisco Garai Iriarte.** Arrasaten, urtarrilaren 23an. 87 urte.
- Aniceto Zumelaga Ajuria.** Bergaran, urtarrilaren 23an. 70 urte.
- Ciriaco Erostarbe Etxeberria.** Oñatin, urtarrilaren 23an. 88 urte.
- Josefa Aurora Solorzano Uzkiano.** Arrasaten, 25ean. 81 urte.
- Manuel Otero Montero.** Arrasaten, urtarrilaren 26an. 66 urte.
- Ines Otxoa de Angiozar Berriolope.** Oñatin, 27an. 80 urte.
- Antonio Delgado Otero.** Bergaran, urtarrilaren 27an. 87 urte.
- Mari Paz Mondragon Madina.** Bergaran, urtarrilaren 27an. 57 urte.
- Teresa Palomero Sanchez.** Arrasaten, urtarrilaren 28an. 97 urte.
- Nikolasa Bilbao Goirizelaia.** Bergaran, urtarrilaren 28an. 83 urte.




Oier Carmona Arkonada
Arrasate • Urtarrilaren 21a • 3,160 Kg. • Gurasoak: **Emiliano Carmona** (Arrasate) eta **Esther Arkonada** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Ibai Apaolaza Arregi
Arrasate • Urtarrilaren 22a • 3,700 Kg. • Gurasoak: **Asier Apaolaza** (Donosti) eta **Esti Arregi** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Nerea Arpon Pavo
Arrasate • Urtarrilaren 21a • 3,190 Kg. • Gurasoak: **Jose Arpon** (Barakaldo) eta **Maite Pavo** (Arrasate). Argazkian, jaioberria gurasoekin.



Ander Mujika Elkorobereziabar
Bergara • Urtarrilaren 21a • 3,150 Kg. • Gurasoak: **Aitor Mujika** (Bergara) eta **Maite Elkorobereziabar** (Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.

ESKELA

Manoli Muñoz Nucete

Donostian hil zen 2003ko abenduaren 3an.

Haren oroimenezko meza domekan, otsailaren 1ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.




Marta Boizas Fernandez
Bergara • Urtarrilaren 22a • 3,140 Kg. • Gurasoak: **Manuel Boizas** (Bergara) eta **Marisa Fernandez** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



Gorka Davila Davila
Arrasate • Urtarrilaren 25a • 3,025 Kg. • Gurasoak: **Marivi Davila** (Arrasate) eta **Manuel Davila** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Danel Paul Manzano
Aretxabaleta • Urtarrilaren 25a • 2,700 Kg. • Gurasoak: **Marije Manzano** (Aretxabaleta) eta **Conrado Paul** (Aretxabaleta). Argazkian, umea Anne ahizparekin.



Julen Garmendia Serna
Bergara • Urtarrilaren 25a • 3,500 Kg. • Gurasoak: **Idoia Serna** (Aizarna) eta **Mikeldi Garmendia** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.


ESKER ONA

Julen Olaortua Gabilondo

Mendaron hil zen 2003ko urtarrilaren 22an, 14 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Amaur Urkia Gonzalez
Aretxabaleta • Urtarrilaren 26a • 2,835 Kg. • Gurasoak: **Itziar** (Armaio) eta **Juan** (Aretxabaleta). Argazkian, umea lhintz ahizpa eta Leire eta Oihane lehengusinekin.



Izar Bikuña Malbadi
Oñati • Urtarrilaren 27a • 3,048 Kg. • Gurasoak: **Mirari Malbadi** (Oñati) eta **Xabier Bikuña** (Oñati). Argazkian, umea amaren besoetan.



Mari Tere Laspiur
arrasatearrak eta **Angel Azkarate** bergararrak 50 urte beteko dituzte ezkontuta, gaur, egubakoitza. Bihar, zapatua, ospatuko dituzte urrezko ezteiak, senitartekoekin batera: Santa Marina elizan meza izango dute, eta ondoren, bazkaria egingo dute. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familia osoaren partetik!

URTEURRENA

Emilio Cid Caldas


Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 1ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GOIENKARIA

Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
Jardiñeta, 3 bis
20600 EIBAR

MATRIKULA LIBREA 2003/04

ZALDIBAR, MALLABIA, ERMUA ETA DEBA BAILARAN bizi diren ikasleak

- **MATRIKULA-SOBREAK JASO:** Otsailaren 2tik 13ra.
- **TOKIA: H.E.O.-eko Idazkaritzan**
- **MATRIKULA BURUTU:** Sobrean adierazitako egun eta orduan. **N.A.N.a BEHARREZKOA DA**

Argibide gehiago 943 20 06 18 telefono zenbakian edo Eskolako webgunean: www.euskalnet.net/eoieibar

HITZGEZIDUNAK

Luma

	* Izena	▼	Gradu militarra	▼	Azeri
	Ahul	▼	* Deitura	▼	
	Araudi-multzotza	▶			
	Boroa	▶			
Distiraz bete	▼	Gabe	▼		
Naizen honek	▶	Zati txiki eta gogor	▶		
	▼	Amore eman	▶		
		Bi	▶		
Burusoilak	▶		▶		Alfonbrak
Laga	▶				
			Bi ken bat	▶	
			Apustua botatzeko	▶	
Iparretarrak	▶	Jaurtigai txikia	▶		
Leku orotako	▶	Tona	▶		
				Fosforoa	▶
				Norena atzizkia	▶
Ez eme	▶	Barre	▶		
Idi, hitz elkartetan	▶	551	▶		
		Deika	▶		
		Utik !	▶		
Titulu musulmana	▶		▶		
Ipar, gutxiz	▶		▶		
				Nor, pluralean	▶

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

FUSIBLERIK EZ
Epoka aretan, Plaentxian pertsona zar mordoxka bat il zan. Ori dala-ta, kuadrilla baten diskusiñua sortu zan. Ia zergatik ete zan. Artadi medikuarengana jo zeben esplikaziño billa. Onek erantzun:
- Ara ba: pertsona nagusixak etxakek fusiblerik, eta orretxegatik, leengo kontaktuan, iltzeko arrixkuan dauz.

ZEIN DA?
Eibartar bat, lagun artian, patxadan, afari ederra egin ondoren, goizeko irurak

aldian, badoia etxera. Atera eltzerakuan konturatzen da: giltza falta!
- Ene —diño—, ointxe naok ondo: nere andria Marina de Guerra dok gero!
An gelditu zan bildurrez, aterik jo nai ezta. Aspertu da, baiña, zaiñ egoten eta alako baten ausartzen da tinbria jotzera.
Andriak barrutik:
- Zein da?
Eta gizonak:
- Zein dan? Goizeko lauretan gizona falta ta zein dan galdetzen dozu?
Ondiok berak artzokuak.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Debagoieneko zein herri eta auzotan dago Lezetxiki?

Lezetxiki 1927an aurkitu zuten leize zulo baten izena da. On Joxe Migel Barandiaranek gidatutako talde batek hantxe aurkitu zuen 1965ean oraingo ezagutzen den Euskal Herriko giza-fosilik zaharrena. Harrezkero, 2003an ere ibili izan dira ikerlariak bertako aztarnak arakatzen. Ba al dakizu non dagoen Lezetxiki?

- Arrasaten, Garagartza auzoan.
- Aramaion, Azkoaga auzoan.
- Oñatin, Urrexola auzoan.
- Bergaran, Angiozar auzoan.

Erantzun zuzena: Arrasaten, Garagartza auzoan.

SOLUZIOAK



K	•	Z	I	T	U	G
A	N	A	T	U	S	•
Z	E	I	E	D	•	I
I	R	I	•	R	A	•
P	•	R	A	T	O	R
A	•	B	A	L	A	•
A	T	B	•	I	Z	U
•	K	A	L	I	O	•
I	S	I	E	T	•	K
K	I	B	A	R	•	D
U	F	O	R	•	•	•
A	L	M	A	K	A	L
•	M	•	R	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Intuzioa erabil ezazu, eta, horrela, galdera guztien erantzunak gertuago izango dituzu. Are gehiago, jendeak zugana joko du aholku bila. Hala ere, zuhurra izan.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Argi ibili ingurukoek zer esaten duten; izan ere, asko maite duzun pertsona baten gainean irainak esaten ibiliko dira. Bestalde, aprobeitza ezazu aisialdirako denbora etxea apaintzeko.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Ez utzi alde batera ardurak eta erantzukizunak, eta parte hartu erabakiak hartu behar direnean; izan ere, hori ez baduzu egiten, ondorioak larriak izan daitezke.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Ezetz esaten ikasi behar duzu, bestela, bat baino gehiago horretaz aprobeitatu da eta hainbat ardura zure gain utziko ditu. Hortaz, argi ibili, eta ez hartu ezin izango izango aurrera eraman, gairik buka dezakezu-eta.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Jendea askok zugana joko du aholku bila; izan ere, oso ulerkorra zara. Hortaz, ez estutu, eta ahalegin zaitzez jendeari laguntzen, hobeto sentituko zara-eta.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Gauzei hamaika buelta emateko joera daukazu. Eta zer lortzen duzu? Argi dauden gauzak nahastea, besterik ez. Aisialdian, kirola egin, ibilaldira-oren bat egin... Horrela erlaxatuko zara.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Behar ez dituzun gauza asko erosten dituzu, eta horrek sekulako astindua emango dio zure patrikari. Are gehiago, maileguren bat eskatu beharko duzu, behar-beharrezkoak diren etxeko gastuei aurre egiteko. Bestalde, arazoak izango dituzu bikotekidearekin, jelskortasun kontuak.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Zure helburuak lortzeko edozer egiteko gauza zara, eta arduragabeki jokatu duzu hainbat unetan. Hortaz, argi ibili zer egin eta esaten duzun, nor bait min zenezake-eta.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Ez zaitzez sartu inongo eztabaida edo debatan; izan ere, zalantza jositako burua, eta lortuko duzun bakarra hanka sartzea izango da. Hortaz, hobe duzu isilik egon.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Barnean beldur eta segurtasunik eza handia duzu, baina, edozelan ere, edozer lortzeko gauza zara. Benetan. Gainera, jende askok zugana joko du aholku eske.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20


Ingurukoak ondo sentiaraztearen esaten dituzu hainbat gauza, baina zu zeu ez zara batere gustura sentitzen esaten dituzunekin. Ez da jarrera egokia. Hortaz, zu zeu izan zaitzez, nahiz eta ingurukoak ados ez egon egiten dituzunekin.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Nahiko pozik eta lasai egongo zara, bai familiartekoekin harreman zabalago izango duzulako, bai bikotekidearekin oso ondo egongo zarela. Horrenbestez, besterik ez, disfruta ezazu momentu hau.



ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 31

Oso egun lainotsua izango dugu zapatua, eta euri txikia egingo du, arratsaldean, batez ere. Tenperaturak gora egingo du. Haizea, berriz, hegoaldeko ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Zaparradak.



DOMEKA, 1

Domekan ere ez du hobera egingo eguraldiak, lainoak izango ditugu nagusi, eta baliteke euria egitea. Tenperatura ez da aldatuko. Haizea, hegoaldeko ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Ostarteak nagusi.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO
TEMPERATURA

9,3° C

ILARGIAREN ALDIAK: OTSAILA



EGUZKIA: OTSAILAREN 1A



URKULUKOURTEGIA

Azkeneko astean, etengabe euria egin du eta asko egin du gora Urkuluko urtegiko ur mailak. Aurreko astean %78,13 zen ur maila; oraingo astean, berriz, %83,65.

% 83,6

BEHARREZKOTELEFONOAK

**((112))
SOS DEIAK**

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrialdia)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 53 47 20
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16

Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34

Laixan / Oñati	943 71 63 11
----------------	--------------

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kirroldegiak

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak


Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKOHEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com

Txirritola	943 71 25 11 • txirritola@goiena.com
Ze barri?	943 79 86 21 • zebarrri@goiena.com
Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde hauen laguntzaz



SAIO BERRIA

IRAGANA GOGORATUZ

Jauntxoak eta baserritarrak

Martitzenean, otsailaren 3an,
20:30ean eta 22:30ean

Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko duzu!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa





Astebete
EGUBAKOITZA 30 / 20:30 eta 22:30



Iragana gogoratuz
MARTIZENA 3 / 20:30 eta 22:30



Lanabesak
MARTIZENA 3 / 21:15 eta 23:15



Iluntzean
EGUENA 5 / 21:15 eta 23:15

Euskal musikaren eta musikarien aurkako erasoak

Azkenaldian, euskal taldeek Espainia-ko Estatuan kontzertuak emateko zailtasunak izan dituzte. Gai horren gainean berba egingo dute *Astebete* saioan. Goiatz Aranek Berri Txarrak taldeko abeslari Gorka Urbizu elkarrizketatuko du.

Baserritarren eta jauntxoaren ingurukoa bigarren atala

Baserritarren eta jauntxoaren gainekoa izango da *Iragana gogoratuz* saioko erreportajea. Garai baten zenbait jauntxo bizi zen inguruan, eta baserritarren botere handia zuten. Baserritarren bilakaera ere aztertuko dute.

Debagoieneko hezkuntza ereduak aztergai

Laster hasiko dituzte bailarako ikastetxeek matrikulazio kanpainak. Hori dela eta, *Lanabesak* saioko kazetariak horien hezkuntza proiektuen gaineko erreportajea egin dute. Debagoieneko bederatzik ikastetxetan izan dira.

Fermin Muguruza musikaria Aintzane Gardokirekin

Punta-puntako gonbidatua izango du Aintzane Gardokik otsailaren 5eko *Iluntzean* saioan. Fermin Muguruza musikaria, hain zuzen ere. Irundarrak komunikatzeko duen gaitasun hori erakutsiko du GOITBko elkarrizketa saioan.

TELEBERRIAK

'Gernikaren belaunaldia', finalista New Yorken

The New York Festivals jaialdian finalistetako bat izango da *Gernikaren belaunaldia*, Idem ekoizpen etxeak ETBren elkarlanean ekoiztutako lana. *Gernikako belaunaldia*-k 36ko gerra garaian etxea eta familia utzi behar izan zituzten haur askoren historia biltzen du, protagonistek eurek kontatua. Gaur emango dira sariak.

Raxoi eta Zapatero telebistan eztabaidak egitearen aurka

Espainiako telebista kateetako informatibo arduradunek salatu dute Espainiako hauteskundeetarako hautagai nagusiek ez dutela buruz buruko eztabaidarik egin nahi. Arduradun horien iritziz, horrelako eztabaidak beharrezkoak dira demokrazian. Beraien esanetan, aurrez egindako mitinen bideoak bidaltzen dituzte politikariek orain, eta eztabaida ez egotea demokraziaren aurkakoa da.

Alemaniarren 'Anaia handia': urtebete etxe barruan


Reality show ezagunaren bosgarren edizioa jarriko dute martxan Alemanian martxoan. Aurten errekor guztiak hautsi nahi dituzte; lehiaketa irabazi nahi duenak urtebete egon beharko du etxe barruan. Horrez gain, aurreko edizioetan baino diru gehiago eramango du irabazleak: milioi bat euro, hain justu. Aurreko edizioetan 90 egun pasa behar izan zituzten irabazleak, baina diru kopurua ere txikiagoa zen.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urtarrilaren 30etik otsailaren 5era

EGUBAKOITZA 30	ZAPATUA 31	DOMEKA 1	ASTELEHENA 2	MARTITZENA 3	EGUAZTENA 4	EGUENA 5
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri: Alberto Gorritibereak denboraldiko azken herriz herri eskainiko dio Arrasateri. Inazio Lakuntza Arrasateko alkateak luze eta zabal jardungo du berbetan eta herritarrek telefonoz egindako galderei erantzungo die. 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Aitor Lopez Rekarte Realeko jokalariekin Aintzane Gardokik izandako solasaldia ikusteko aukera duzue asteburuan. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri: Alberto Gorritibereak denboraldiko azken herriz herri eskainiko dio Arrasateri. Inazio Lakuntza Arrasateko alkateak luze eta zabal jardungo du berbetan eta herritarrek telefonoz egindako galderei erantzungo die. 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Aitor Lopez Rekarte Realeko jokalariekin Aintzane Gardokik izandako solasaldia ikusteko aukera duzue asteburuan. 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Iragana gogoratuz 14:30 Berriak 15:00 Berriak 15:30 Lanabesak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iragana gogoratuz 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iragana gogoratuz 23:00 Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Iragana gogoratuz	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Txirindularitzan nenbilenean, gogoan dut mediku batek goizero-goizero tentsioa hartu eta zera esaten zigula: 'Ondo zaude, gaur lasterketa irabaziko duzu, seguru!'"

Jesus Arantzabal / Txirindulari ohia Berriak (2004/01/27)



"Datorren urtean 375 urte beteko dira Eskoriatza eta Aretxabaleta bereizi zirela. Historian zehar gorabeherak izan zituzten, baina orain, harreman onak ditugu"

Arritxu Oleden / Aretxabaletako alkatea BERRIAK (2004/01/28)


TELEBEGI / Unai Loidi

Sobera dago

Eta gainera higuindu eragin arte agertzen da. Ordu guztietan. Edozein katetan. Programa klase guztietan. ETB2n bazkalosteetan, eguneroko lehiaketarekin; eta astelehen gauetan *La Gran Evasión*-en; eta Antena 3n gauero, beste lehiaketa bat aurkezten. Laster igual ikusiko dugu domeka goizetako meza ematen ere bera, abadearen lekuan. Monagilo izateko jaioa ez da behintzat. Funtzioko paperik inportanteena gustatzen zaio. Testurik gehien daukana.

Egiten dituen elkarrizketetan, bera protagonista. Ekartzen dituen gonbidatuekin tratu informala eduki beharrez, nekagarria. Ustezko estilo propio bat egin duelakoan, bere buruaren esperpento bihurtu da. Honelako izarrekin, gauza bat dauka ona telebistak: orain ordu eta alde guztietan agertzen den moduan, erretzen denean, edo modaz pasatzen denean, desagertu egingo dela igual. Niri, behintzat, aspalditik iruditzen zait sobera dagoela.





50

eraino
oinetakoetan
eta kirol modan

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea 2-6

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

www.forumsport.com

Atzeskua

USOA AGIRRE

Xabier Olabarria/ Beti Alai taldekoa

Noiztik zabilta Santa Ageda bezperan koplak kantatzen?

Beti Alai taldeak joan den urtean bete zuen 30. urteurrena. Beraz, hogeita hamar urte, behintzat, badaramatzagu Santa Ageda bezperan kantatzen.

Hogeita hamar urteotan izan du aldaketarik Santa Ageda bezperako eskeak?

Giroa aldatu da gehienbat, gizartea ere asko aldatu delako denbora laburrean. Lehen, kin-

toak irteten ziren Bergaran Santa Ageda bezperan eskean. Orain, kintorik ere ez dago eta inork ez dio ohiturari eutsi.

Duela urte batzuk gizonen kontua zen Santa Ageda bezperan eskean joate hori.

Gure taldean gizonen kontua bakarririk gara, baina ez da talde itxia. Kontua da gizonen ahotsekin kantatzen dugula, eta, emakume-

ren bat sartuz gero, asko aldatu behar luke kantatzeko moduak ere.

Zuek ez duzue, baina, eskean egiten.

Ez. Ero-soagoa da ezer ez eskatu eta lasai kantatzea. Dirurik ez dugu behar guk. Hala ere, bada urtero dirua ematen digun

bat: *Panti*-ren ama. Gure taldekoa da *Panti*, baina kartzelan dago. Urtero kantatzen dugu haren etxe aurrean, familiakoei elkartasuna adierazteko.

Ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz..., dio koplak. Zuek aberatsak zarete orduan.

Ez gara eskean joaten, baina eskean joaten direnak ere ez dut uste dirua egitera joaten direnik.

Baina gero egingo duzue afariren bat edo...

Bai, urtero egiten dugu kantuan ibili eta gero afari-txoa. Egunari kolorea ematea komeni izaten da, eta horretarako hoberena da hori. Taldeko arauetan jarrita daukagu: Santa Zezilia egunean eta Santa Ageda bezperan afari eder bat. Ohitura horiek errotzea komenigarria da.

Ahots ona izatea beharrezkoa da?

Ez, borondatea eduki behar da. Ahots ona eduki-

tzea eskertzen da, baina ez da beharrezkoa.

Zein da janzkera egokiena?

Kaikua, txapela eta lepoko zapiarekin irteten gara gu. Makila ere beharrezkoa da, erritmoari eusteko.

Barrua ere berotu beharko duzue.

Ondo prestatuta joaten gara, zahato eta guzti. Barrua ondo berotu behar da ondo kantatzeko, eta ardoa ona baldin bada hobeto kantatzen da.

Apurtu zaizkizue inoiz makilak?

Behoko aldea nahiko zapalduta du dagoeneko makilak. Hogeita hamar urtean makilakada asko jo dugun seinale.

Santa Agedarengan sinesten duzu?

Sinesmen gutxi gelditzen da gaur egun gauza guztiarako. Norbaitek sinetsiko du akaso, baina ni ez naiz oso sinestuna. Ohitura delako kantatzen dugu.



“Hogeita hamar bat urte daramatzagu Santa Ageda bezperan kantatzen”

“Urtero egiten dugu kantuan ibili eta gero afaria. Taldeko arauetan jarrita dugu: Santa Ageda bezperan afari eder bat”

“Barrua ondo berotu behar da ondo kantatzeko, eta ardoa ona bada, hobeto”

► Bergara / 51 urte / Administraria

PIPERRAUTSA

Amann

Bisitatu izan dugu ibarrean abizen arabiarreko sailburua, bi gai sakelan: Abiadura Handiko Trena eta ibarreko tranbia. Bigarren honen hurbiltasunak poza eragin dit; lehenarenak, zalantza.

Amannek esan ohi du AHT eraiki ezean urte asko atzera egingo genukeela, garapenetik kanpo geratzeraino. Ez du azaltzen zergatik, baina bultzaka ari zaio Madrilgo gobernari arin ekiteko lanei. Hemen lehen zalantza: zehaztu gabe dagoenez jarraipenik izango duen Gasteiztik behera, Bilbotik ezkerrean eta Donostiatik gora, eta jakinda ibilbide luzerik gabe gure Y-ak ez lukeela ekarriko aparteko onurarik, zertarako horrenbeste presa gure zatia egin dadin beste guztia baino lehen?

Bigarren kezka sortu zait irakurtzean AHT garrantzizkoa dela ibarreko merkantzentzat, eta horregatik hobe geltokia Antzuolan eta ez Ezkio/Zumarragan. Esango nuke ibarreko produktua banatzeko erabiltzen direla Bilboko itsas portua, Gasteizko aireportua, eta errepideak. Ba ez dirudi oso zentzuzkoa zamak garraiatzea kamioietan Antzuola edo Ezkiora, handik trenez joan daitezten Bilbora edo Gasteiza. Eta errepidearekin lehiari aritzea, ibilbide luzea behar luke AHTk, bestela alferrik. Orduan?

Askoz ere argiago ikusten dut tranbiarena, ibarreko metroaren funtzioan. Horrek bai hobetuko duela nabarmen gure eguneroko bizimodua, abian jartzen den egunetik bertatik.

MIKEL IRIZAR

Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatu

Zubillaga auzoa 1
 OÑATI
 Tel.: 943 71 63 22
 Faxa: 943 78 15 51

